



14

LAGUNTZA OROKORTUAK BEHAR DITUZTEN IKASLEENTZAKO IKASGELA EGONKORRAK DBH-KO IKASTETXEETAN

Funtzionamendurako orientabideak

ARGITARATUKO TXOSTENAK

1. Garapenaren nahasste orokortuak dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamenduko orientabideak.
2. Educautisme. Módulua: gizarteko gaitasunak eta elkarreraginak.
3. Educautisme. Módulua: jokaera-arazoak.
4. Educautisme. Módulua: autismo duten pertsonen hezkuntzarako baliabide eta ikasmaterial didaktikoak.
5. Hpb-ak dituzten gazteen bizitza aktiborako transizioa: zereginen ikaskuntzarako programaren curriculum-esparua.
6. Hpb-ak dituzten gazteen heldutasunerako igarobidearen plangintza. Igarobiderako norbanako plana osatzeko gida.
7. Elebitasuna eta hezkuntza premia bereziak.
8. Hasierako ebaluazioa zereginen ikaskuntzarako geletan.
9. Entzumen eta hizkuntzako gelak. Antolakuntza eta funtzionamendurako orientabideak
10. Zeinu-Lengoaia Eskuliburua. Haur Hezkuntza.
11. Manual de Lenguaje de Signos. Educación Infantil.
12. Zeinu-Lengoaia Eskuliburua. Lehen Hezkuntza Lehen Zikloa.
13. Manual de Lenguaje de Signos. Educación Primaria Primer Ciclo.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaria
Curriculum Gaaratzeko eta Irakasleak Prestatzeko Institutua (CEI-IDC)
Hezkuntza-premia Bereziarako Area
Egilea : Alicia Sainz Martinez

Argitaraldia:

Ale-kopurua: 200

© Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 2 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Imprimaketa:

ISBN:

D.L.:

AURKEZPENA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bere ondorio guztiakin abian jartzearekin (batez ere, ikasleak hamasei urte bete arte hezkuntza erakundean segitzea) ikastetxeen egitura birmoldatu egin da, horien antolamendu eta lan egiteko erak aldatu egin dira eta giza taldeak gero eta hobeak izateko borondate iragankorra dago, ikasgeletan dagoen aniztasunari behar bezala erantzun ahal izateko.

Agiri-bilduma honen 1. zenbakia, *“Garapenaren nahaste dituzten ikasleentzako gela egonkorren funtzionamenduko orientabideak”*, irakasleei zuzentzen zaie eta hezkuntza premia bereziei buruzkoa da. Ikasgela horiek gure hezkuntza sisteman duten kontzeptua eta esanahia garatu zuen era zabalean.

Oraintxe da momentua DBHn eskolaratuta dauden eta berariazko prestakuntzako irakasleen laguntza berezia behar duten nerabeei zuzentzeko, hain zuzen, laguntzaile gaitu; eta irakasle talde, irakasle klaustro sentsibilizatuak eta euren berezitasunaren jakitun, ikastetxeen bizitzan arian-arian parte hartzeari eraginkortasunez ekiteko.

Aurkezten dizuegun lan hau tresna aberasgarria da, eraginpeko profesional guztiei gure hezkuntza errealitate honetara hurbiltzen lagunduko diena eta oinarria izanik ikastetxeko zein kanpoko laguntza zerbitzuek beren egitekoak koordinatu ditzaten sailen aurreikuspenen arabera (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza honek argitaratutako *Hezkuntza Berriztatze Programak 2000-2003* jasoak), gure eskola erakundeak benetako ikastetxe inkluditzaileak eginez, aniztasun mota guztiak eta egoera bereziei araupeko arreta naturaltasunez jasota.

Nekane Agirre Arregi

Hezkuntza Berriztatze zuzendaria

SARRERA

Material hau lantzeko orduan, derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeen ikasgela egonkorretara joaten diren ikasleei zuzendutako hezkuntza-erantzuna errazteko helburua izan dugu gidari.

Batez ere beren lana ikasgela egonkorretan garatzen duten irakasleei, pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleei eta laguntzaileei zuzenduta dago, bai eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lanean aritzen diren irakasle guztiei ere; izan ere, ikasgela hauek, ikasle bakoitzari arreta indibidualizatua eskaintzeaz gain, ikasketei ez dagozkien ikastetxeko eguneroko gizarte-jardueretan ikasle horrek parte hartzea lortu nahi dute.

Gure asmoa da, material hau arretaz irakurri ondoren, irakasleek eta laguntza-zerbitzuek ikasgela hauen funtzioari buruzko informazio egokia bildu eta honako puntu hauetarako hainbat irizpide lortu ahal izatea:

- ikasgelaren Curriculum Proiektua eta Lan Egitasmo Indibiduala lantzeko gida gisa baliagarriak izango diren ikasgelako ikasleen hezkuntza-premia garrantzitsuenak identifikatzea.
- gazte hauei autonomo izateko baliagarriak izango zaizkien ikaskuntzak irakasteko garatu beharko den curriculum-mota ulertzea
- ikasgelaren eta ikastetxearen eguneroko edo asteko lan-jardunari dagozkion jarduerak programatzeko ideiak ateratzea
- ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean gertatzen dena uler dezaten, ikastetxearen testuinguruan burutu beharko diren egokitzapen-motak ezagutzea
- autismoa eta burutiko atzerapena duten pertsonak ezagutu eta beren parte-hartzea bultzatzeko, ikastetxeko ikasle arruntekin burutzeko proposa daitezkeen jarduera-motei buruzko orientabidea izatea.

Horrez gain uste dugu dokumentu honen irakurketa beste profesional batzuekin parteka daitekeela ikasgela egonkorretako irakasleen koordinazioko edo autoprestakuntzazko saioetan, Pedagogi Aholkutegetan egiten diren mintegietan, etab. Gainera, gure iritziz, ezagutzan eta esperientzia praktikoan oinarritutako egiaztapenak ikasleei eskaintzen zaien arreta nahiz helburutzat orientabidea duten etorkizuneko lanak aberas ditzake.

AURKIBIDEA

Ikasgela egonkorra DBHn	6
Ikasgela egonkorreko ikasleak.....	11
DBHren testuingurua eta ikasgela egonkorreko ikasleak.....	14
Gela egonkorreko ikasleekin bete beharreko irakaskuntza printzipioak.....	18
Ikastetxearen Curriculum Proiektua eta ikasgela egonkorra	21
Ikasgela egonkorraren Curriculum Proiektua.....	26
Ikasgela egonkorraren curriculuma	31
Ikasgelaren metodologia eta funtzionamendua	57
Ikasleen jarraipena eta ebaluazioa	61
Profesionalen koordinazioa	63
Ikasgelako material didaktikoa eta ekipamendua.....	68
Eranskinak	76
1. eranskina. Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuko elementuak.	
2. eranskina. Ikasgela Egonkorraren Programazioko elementuak.	
3. eranskina. Lan Egitasmo Indibidualeko elementuak.	
4. eranskina. Ikaskuntza-ingurune baten programazioa: kafetegira joatea.	
5. eranskina. Ikaskuntza-inguruneak programatzeko plantila.	

Dokumentu honen helburua da autismoa, garapenaren nahaste orokorrak eta burutiko atzerapena izanik, beren adin kronologikoagatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arrunt bateko ikasgela egonkorrean eskolatuta dauden ikasleei eskaintzen zaien hezkuntza-arreta orientatzea.

"Laguntza orokortuak" behar dituzten ikasleei zuzenduta dago, alegia DBHn ikasten den curriculumetik oso modu esanguratsuan bereizten den curriculum bat garatzeko arreta oso indibidualizatua eta baliabide trinko eta jarraituak behar dituzten ikasleei zuzenduta dago. Kasu hauetariko askorentzat baliabide egokia ikastetxe arrunt batean kokatutako ikasgela egonkor bat da, laguntza orokortuak eskaintzeko aukera ematen duelako.

Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarrak, A.A.M.R.¹ delakoak, burutiko atzerapena definitzeko erabiltzen duen dimentsioetako bat, hain zuzen, pertsona batek autonomiaz moldatzeko behar dituen *"laguntzak"* dira. Pertsona horiek behar duten laguntzaren intentsitatearen arabera, 4 laguntza-mota bereizten dituzte: aldizkako laguntzak, laguntza mugatuak, laguntza hedagarriak eta laguntza orokortuak. Laguntza-mota hauek eskola-eremuan duten aplikazioa adierazteko adibide bat ondokoa izan daiteke:

- aldizkako laguntza ezin da aurreikusi, aldi laburretan izaten da eta une batez ematen da premia zehatz bat sortzen denean. Adibidez: une zehatz batean errefortzu bat aplikatzen da ikaskuntza jakin bat barneratzeko.
- laguntza mugatua aldeztatik aurretik planifika daiteke denbora-aldi zehatz baterako. Adibidez: hiru hileko programa bat ezartzen da ikasleak arreta indibiduala eskaintzeko moduan antolatzen; laguntzaile baten laguntza behar da gorpil-aulkian doan ikasle bat mugitzen aldi zehatz batez laguntzeko; logopediako edo laguntza-gelako arreta behar da aldeztatik aurretik planifikatutako denbora-aldi jakin baterako.

¹ *Retraso mental. Definición, clasificación y sistemas de apoyo.* American Association on Mental Retardation. 1997. Alianza. Madrid.

- laguntza hedagarriak eremu zehatz batzuetan modu jarraian behar izatea du bereizgarri. Adibidez: esfinterren kontrola burutzeko laguntzaileak; ikastetxe barnean ibiltzeko, jangela erabiltzeko eta abarrerako laguntzaile baten laguntza; modu esanguratsuan egokitutako curriculumaren alderdiak garatzeko laguntza indibidualizatua.
- laguntza orokortua ingurune desberdin askotan ematen da, sakonagoa da, denbora-aldi luzeago baterako aurreikusten da eta pertsoneri eta materialei dagozkien aparteko baliabideak eskatzen ditu. Adibidez: curriculum arrunta bete ezin duten eta ikaskuntzarako beste estrategia batzuk behar dituzten ikasleentzako ikasgela egonkorra; ingurunea ulertzeko langile espezializatuak behar dituzten metodo alternatiboak erabiltzea; etab.

Gela hauek **EGONKOR** gisa definitzeak bi arrazoi ditu: alde batetik, etengabeko erreferentzia bat dira bertan arreta eskaintzen zaien ikasleentzat; bestetik, baliabide egonkor batzuk esleituta dituzte, laguntza orokortua eta etengabea behar duten ikasleen hezkuntza-premia larri eta iraunkorren arabera.

Gela egonkor baten ezaugarriak honako hauek dira:

- Ikasgelak espezializatutako tutore bat edo bi ditu, DBHko ikasleei dagokien ordutegia betetzeko xedez.
- Behar den espezialitatea pedagogia terapeutikoa da.
- Ikasgelak laguntzaile bat du esleituta.
- Ratioa 4-5 ikaslekoa da, hauek duten arazo larriaren arabera.
- Modu esanguratsuan egokitutako curriculum bat garatzen da eta hori garatzeko material eta ekipamendu espezifikoa behar dira.
- Ikastetxe arruntean integratuta dagoen berezko espazio fisiko bat du eta bertan hezkuntza-zereginaren zati bat planifikatzen eta burutzen da.
- Kokatuta dagoen ikastetxe arruntaren espazio komunak erabiltzen ditu eta bertako ordutegiak, irakasjarduna eta egutegia betetzen ditu.

Kasu jakin batzuetan baliabide egokia ikasgela egonkor bat izateak ez ditu inoiz zalantzan jarri behar ikasle batek izan ditzakeen guztiz edo neurri batean integratzeko aukerak. Halere, kasu honetan laguntza trinkoak eta orokortuak behar dituzten ikasleez hitz egin nahi dugu, beraientzat ikastetxe arrunt bateko ikasgela egonkorra baita gutxien murriztuko dituen testuin-

guru. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hezkuntza-premia iraun-korrek dituzten ikasleak dira; hauentzat curriculum-egokitzapenari dagozkion neurri arruntak ez dira nahikoak eta, batez ere, oso urrun daude beren hezkuntza-premia eta -helburu nagusietatik.

*"Eskola muinbakar eta integratzaile baterako txostenean"*² agertzen denaren arabera, ikastetxe arrunta da "... beharrezkoak diren baliabideez horniturik, ikasle guztiei erantzuna eman behar dien hezkuntza-espazio bat." "... ikasgela arruntean ikasle gehienek ingurune horretan hezkuntza zuzena jasotzea ahalbidetu behar duten metodologiari eta antolamenduari dagozkien aldaketak azpimarratzeaz gain, eskola-sistemak ikastetxe arruntetan behar bezala hornitutako espazioak izatea gomendatzen da, baliabide materialei eta giza baliabideei dagokienez eta erantzun behar dien premien arabera..." (40 or.)

Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasle batzuen hezkuntza-premia bereziak kontuan hartuz, ikasgela egonkorra ikasle horiek behar duten laguntza orokortua eta trinkoa bermatzen duen aparteko baliabidea da eta, gainera, gizarteratzeko aukerak ematen dizkien ikaskuntzarako testuinguru egoki bat eskaintzen die.

Gela hauetako ikasleek beharrezkoak dituzte hezkuntzaren esku-hartze oso indibidualizatua eta, garatu ahal izateko, DBHko ikasgela arrunt batean nekez eskain daitezkeen metodologia- eta antolamendu-baldintza jakin batzuk behar dituen curriculumak. Ikasgela hauek ikaskuntzarako testuinguru egonkorra ematen dute eta, bertako ikasleek behar duten arreta indibidualizatu eta bereizia eskaini ahal izateko, baldintza ezin hobeak dituzte. Gainera, ikastetxe arrunt baten zati direnez, ingurune normalizatu batean kokatuta egotean normalizatzeko eta gizarteratzeko aukera oso interesgarriak eskaintzen dizkiete ikasleei.

Horrez gain, ikastetxeko ikasle guztiekin lankidetzan aritzeko sentsibilizatzea eta horretarako baloreak eta jarrerak indartzea ahalbidetzen da; ikasgela egonkorrak, izan ere, curriculum bati jarraiki arreta zehazki ikasle jakin batzuei bakarrik eskaintzen dien arren, ikastetxeko espazio fisikoan eta sozialean integratuta dago, antzeko adina duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle arruntekin nahasiz (12-14-16 urtetik hasi eta 18 urtera arte, gutxi gorabehera).


²*Informe para una escuela comprensiva integradora*. 1988. Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Berrikuntza Pedagogikorako Zuzendaritza. Vitoria-Gasteiz.

DBHn hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei arreta eskaintzeko hezkuntza-sistemak prestatzen dituen baliabideak anitzak dira eta horien artean sartzen da ikasgela egonkorra, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dituen Aginduan ikus daitezkeenez³. Aniztasunari arreta eskaintzean komeni da baliabide-mota bakoitzaren helburua zein den ezagutzea: zein funtzio betetzen duten, zein ikasle-motari zuzenduta dagoen, zein curriculum-mota garatzen duten, etab. Orokorrean intentsitate desberdineko hiru baliabide-mota bereiz daitezke; bakoitzak premia-talde handi bati erantzuten dio:

- 1.- Mugimenduari eta/edo entzumenari dagozkien urritasunen ondoriozko hezkuntza-premia bereziak. Eskolatzea ikasgela arruntean burutzen da eta laguntzaileen eta baliabide tekniko eta/edo pertsonal egokien laguntza izan daiteke. Pertsona hauek, curriculum-egokitzapen indibidualekin eta dagozkien laguntza espezializatuekin, gai dira DBHri dagozkion gaitasunak lortzeko.
- 2.- Minusbaliotasun kognitibo orokorrei loturiko hezkuntza-premiak. Eskolatzea pertsona bakoitzak oinarrizko hezkuntza-helburuak lortzeko dituen zailtasunen arabera burutzen da. Erreferentzia gisa har dezakegu, larritasun gutxien duten kasuentzako, curriculum-egokitzapen indibidualak dituen eta laguntza-gelan edo hezkuntza bereziko gelan laguntza espezifikoa jasotzen dituen ikasgela arrunta. Zereginen ikaskuntzarako gelak, 16 urtetik gora, curriculum espezifikoa bat garatzen du eta, horrez gain, hainbat jardueratan ikasle arruntekin parte hartzea errazten du.
- 3.- Laguntza orokortua behar duten autismoaren, garapenaren nahaste orokorren eta burutiko atzerapen larriaren ondoriozko hezkuntza-premia bereziak. Kasu hauetan ikasgela egonkorra, ikaskuntza funtzionaletan oinarritutako curriculum espezifikoa batekin eta baliabide espezifikoa eta egonkorrez osatutako hornidurarekin, hezkuntza-zati honetan eskaini behar den arretarako modalitate egokia da. *1. eskema.*

³ Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko agindua. 1998ko uztailaren 30eko EHAA.

1. ESKEMA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan HPB dituzten ikasleak



DBHri dagokion zatian ikasgela egonkor batean arreta jaso dezaketen ikasleak definitzerakoan, ezin dugu argi eta garbi bereizitako ezaugarri diagnostikoak dituzten taldeetan pentsatu. Aldez aurretik zenbait gogoeta egin behar ditugu:

- Praktikan ikusten dugunez, **diagnostikoa** bera bakarrik, minusbaliotasun edo urritasun baten arabera eginda, ez da nahikoa ikasgela egonkorra baliabiderik egokiena dela ezartzeko adierazle gisa.
- Garrantzitsua da ikasleak ohiko testuinguruan lortzen duen funtzionamendu-maila kontuan hartzea; zentzu horretan, egokitzapen-trebetasunen arlo desberdinetan lortutako garapen-maila ikasleak behar duen laguntza-motaren adierazle bat izango da: ikasgela egonkorra edo horren murriztailea ez den beste laguntza-motaren bat.
- Bere curriculumak garatzeko behar duen **laguntza-mota**, haren intentsitatea, indibidualizatua den ala ez, behar duen denbora, etab. ikasgela egonkorraren komenigarritasuna baloratzeko adierazleak dira.

Orokorrean DBHko ikasgela egonkorra baliabide egokia izan ohi da ikaskuntzarako laguntza orokortuak eta trinkoak behar dituzten ikasleentzako; ikasle horiengan bat etorri ohi dira ondoko ezaugarriak:

- erdi-mailako burutiko atzerapena, larria edo sakona izatea
- aldaketak oinarriko garapen-arloetan: gizarte-arloa, komunikazioa, jarrera, etab., ezagutza-maila baxu batekin bakarrik erlazionatuta ez daudenak.
- garapen kognitibo baxua
- ohiko ingurunean funtzionamendu urria
- aparteko laguntzak eta curriculumaren egokitzapen esanguratsuak behar izan dituen ikaskuntza-ibilbidea

- hauei loturiko sentimen-urritasunak edo mugimen-asaldurak bezalako beste nahaste batzuk izatea.
- zereginak burutzeko laguntza oso indibidualizatuak eta maiztasun handiko ikuskapenak behar izatea.

Praktikan eta malgutasun-irizpide bati jarraituz, ezaugarri horiek honako talde hauetan aurkitzen dira:

- **Autismoa edo garapenaren beste nahaste orokor bat duten ikasleak**

Beren buruaren ezagutzan eta beren inguruko mundua ulertzean urritasun garrantzitsuak dituzten neska-mutikoak dira. Asaldura sakonak eta konplexuak erakusten dituzte komunikazioan, ahozkoan nahiz ez-ahozkoan. Ez dute besteekin komunikatzeko asmorik edo hau ez dago behar bezain ondo finkatuta; asaldurak erakusten dituzte ahozko hizkuntza erabiltzean; izan ere, ez dute halakorik erabiltzen edo modu desegokian erabiltzen dute. Ikasle hauen ezaugarrietako bat da gizarte-egoerak ulertzeko eta gainerako pertsonen adimen-egoerak egozteko, hauek pentsatzen eta sentitzen dutena irudikatzeke, bai eta beren egoera emozionalak eta beharrak ulertarazteke ere duten zailtasuna. Honek sarritan egokitzapen-arazoak eta portaera-aldaketak eragiten ditu. Gehienek, gainera, adimen-urritasuna ere badute eta ezagutzaren garapenean eragina duen interes-aukera oso murriztua izan ohi dute. Ikaskuntza arazo espezifiko honek markatzen du eta horren ezaugarri ditugu ikasteko moteltasuna eta ikasitakoa orokortzeko zailtasuna.

- **Burutiko atzerapen larria edo sakona duten ikasleak**

Neska-mutiko hauek funtsean ezagutzari dagokion atzerapen bat izan ohi dute eta honek eragina du arreta, pertzepzioa, oroimena, etab. bezalako oinarrizko funtzioetan, bai eta zereginak, errazenak badira ere, planifikatu eta burutzeko gaitasunean ere. Ezagutzaren garapen-maila baxuak komunikazioan ere eragina du; hain zuzen, ohikoa izan ohi da besteekin komunikatzeko asmoa izan arren, ahozko hizkuntzaren bitartez egiteko zailtasun handiak izatea. Kasu larrietan, gaitz neuromotoreei loturik daudenean, gaitz horiek jasaten dituen ikasleak arazo gehiago ditu ingurunea ulertu eta komunikatzeko, hizketarik ez duelako edo mugimen-urritasuna duelako. Era honetako ikasleek, gainera, osasun-arazoak eta gaixotasun kronikoak izan ditzakete eta kasu horretan premia bereziak hezkuntza-arloa osatzen duten beste esparru batzuetara hedatzen dira. Ikaskuntza motela da, entrenamendua eta etengabeko laguntzak behar dituzte ikasitakoa gordetzeko.

Hezkuntzaren esparruan, erreferentziatzen dituzten premia bereziak, lortutako egokitzapen-maila eta aurreko eskolaketan jarrarazitako ibilbidea hartzen baditugu, ikasleak bi mailatan banatzen direla pentsa dezakegu:

1. maila: Lehen Mailako Hezkuntzan ikasgela egonkorrean eskolatuta egon diren DBHko ikasleak. Etorkizuneko irtenbidea eguneko ikastetxe bat edo lan- eta lanbide-ikastetxe bat izatea aurreikus daiteke.

2. maila: GNOei dagokien arazoa, autismoa edo burutiko atzerapen larria izanik, Lehen Mailako Hezkuntzan ikasgela arruntean baina Curriculum Egokitzapen Indibidualarekin egon diren DBHko ikasleak. Orokorrean integrazioa partziala izan ohi da eta laguntza-gelaren edo beste profesional batzuen arreta jasotzen dute; laguntza hori trinkoa da neurri batean edo bestean, bai arreta jasotako denborari dagokionez, bai eta beren CEIn planifikatutako curriculumeko alderdiei dagokienez ere. Ziurraski, DBHra igarotzean laguntzak areagotu eta beren curriculumak garatu beharko dira, autonomia pertsonalerako oinarrikoak diren ikaskuntzak finkatuz. Etorkizuneko irtenbidea, ibilbide indibidualaren arabera, babestutako lantegi bat edo lanbide-ikastetxe bat izan daiteke, aldez aurretik zereginen ikaskuntzarako gela batean eskolatzeko aukerarekin.

Bigarren Hezkuntzako ikasgela egonkorretan, alegia autismoaren, burutiko atzerapen larriaren edo garapenaren beste nahaste batzuen ondoriozko minusbaliotasunak dituzten ikasleak hartzen dituztenetan, adin honetako hezkuntza-zeregina berezia izatea eragiten duten zenbait elementu batzen dira. Honako hauek dira:

- ◆ DBHko ikastetxearen testuingurua
- ◆ Ikasleen nerabegaroko adina
- ◆ HPB dituzten ikasle nerabeak

◆ ***DBHko ikastetxearen testuingurua***

- Ikastetxe hauek 12 urtetik 16 urtera bitarteko haurrak hartzen dituzte (18 urtera arte izan daiteke) eta hauei hezkuntza-sistemak lehenengoz eskaintzen die derrigorrezko hezkuntza. Ikastetxe hauetariko asko testuinguru orokortuago batean aurkitzen dira, derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa ikasten ari diren ikasleak ere hartzen dituztelako.
- Bertan aurkitzen diren ikasle guztien aniztasunari erantzun nahi dion eskola muinbakarra da.
- Irakasle-kopurua handitu egiten da eta hauek talde eta ikasle bakoitzari erantzuten diote.
- Curriculuma arloko edo irakasgaiko irakasle espezializatuek irakasten dituzten arloetan banatzen da, baina talde-gela bakoitzean irakasten duten irakasleen kopurua murrizteko irakasgaiak taldekatu egin daitezke.
- Hezkuntzaren errefortzuko, curriculum-aniztasuneko eta curriculumaren egokitzapeneko neurriak hartu behar dira.

◆ ***Nerabegaroko adina***

DBHko ikastetxeetako ikasleen (12-16/18 urte) garapen pertsonala nerabegaroren etapari dagokion aldian gertatzen da. Nerabegaroan dauden ikasleei arreta eskaini beharra ez da berria hezkuntza-sistemarentzat, izan ere tradizionalki adin honetako ikasleei arreta eskaini zaie. Halere, berrikuntza da eskola-sistema lehenengoz eta derrigorrez nerabegarori dagokion adinaz

arduratzea. Nerabezaroa, garapenaren fase bat izateaz gain, 4 edo 5 urtez luzatzen den gizarte-etapa bat da eta bertan ikasleak berezko ezaugarriak dituen fase batetik igarotzera behartuta aurkitzen dira.

Neska-mutiko hauekin harremanak izatean sor daitezkeen gatazkek, funtsean, zerikusia dute nerabezaroan egotearekin. Etapa honetan gatazkek batez ere gizarte-mailan agertzen dira, profesionalek haiek beste modu helduago batean jokatu behar luketela pentsa dezaketen arren. Etapa honetan ikasleekin elkarreraginean aritzeko moduak berezko estilo bat izan behar du; ezin da ikaslea haurra bailitzan tratatu, baina heldu bat balitz bezala ere ez.

Hezitzaileentzat beharrezkoa izango da pertsona, alegia ikaslea *"izaki nerabe"* gisa hartzen ikastea. Ondorioz, hezitzaileek nerabeekin harremanak izateko jarraibideak berriz zehaztu beharko dituzte eta horrek aldaketa bat eskatuko du ikasle horiek antzemateko moduan ere: *"ikaslea aldaketa-aldi batean sartuta dagoen, alegia nerabezaroan sartuta dagoen izaki gisa* ikusi behar da". Nerabeei dagokienez arian-arian sor daitezkeen zailtasunak konpontzeko modu egoki bat izan daiteke etapa horretan beren buruaz ikuspegi positibo bat lortzen laguntzea, gauza baliagarriak eta positiboak egiteko gai direla ikus dezaten. Curriculumak ere helburu hau sartu beharko du etaparen helburu artean.

- Nerabezaroak "haurren" mundua utzi eta haurtzaroko estatusa uztea eskatzen du; aldaketa honek hainbat zailtasun dakartza berarekin eta neska edo mutiko bakoitzak bere erara egin beharko die aurre.
- Nerabezaroaren etapan nortasun baten zati bat galtzen da mundu sozialean toki berri bat hartzeko; mundu honetan ez dira haurrak, baina ezta gazteak edo helduak ere.
- Beren nortasuna bilatu eta ingurunearen exijentzietara moldatzeko ahalegin horrek beren buruaz iritzi negatiboa garatzea eragin dezake.

- Ingurunearen aurkako erreakzioak eta jarrera ere izan ohi dira; hauek bereizgarri dituzte ingurunearekiko portaera eta jarrera gatazkatsuak.
- Eskola-eremuan nerabe izanda nahiz eskolan derrigorrez egon behar izanda, tentsio logikoak agertzen dira.

◆ *Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasle nerabeak*

Minusbaliotasunen bat duten pertsonak, minusbaliotasun hori larritasun-maila handiagokoa nahiz txikiagokoa izan arren, beren adineko ikasleen eboluzio-fase berberak igarotzen dituzte. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek beste edozein nerabek bezala egin behar diete aurre etapa honek berarekin dakartzan aldaketa eta erronkei. Pertsona heldua behar dute berarekin aurrez aurre jarri eta arian-arian munduan jokatzeko modu berri bat bilatzeko. Nerabezaroaren etapak bereizgarri dituen jarrerak eta bizimoduak eragin berbera dute minusbaliotasunak dituzten pertsonengan; hauek ere modak, talde-portaerak, hizkuntzak, etab. imitatzeko joera dute, eboluzioaren ikuspegitik beraiek ere nerabe izateko betebeharrak soziala dutelako. Besteek bezala, minusbaliotasunak dituzten pertsonak beren etapa nerabea garatzeko eskubidea dute eta, beraz, beren adin kronologikoa errespetatu behar da aldi berean nerabe gisa hartuz eta nerabe izaten irakatsiz. Logikoa dirudi HPB dituzten ikasleekin izaten diren harremanetan eta hezkuntza-programetan ere, irakasleak ondoko galderak planteatzea:

- *Nola lagun diezaiekegu HPB dituzten pertsonen nerabe izaten? eta*
- *Nola egin dezakegu oso desberdinak diren nerabeen artean talde-hesi bat izan gabe?*

Garrantzitsua da:

- Nerabezaro-etaparen denbora-ikuspegi bat izatea.
- HPB dituen "*pertsona*" ezagutzea, premia horietaz aparte berezko interes eta gustuak, bere biografia eta bizi-esperientzia zehatz batzuk baititu.
- Pertsona nerabeekin ezartzen diren harreman-jarraibideak berriz zehaztea.
- Ikaskuntza-edukiak, materialak eta baliabideak HPB dituzten ikasleen nerabezaro-adinari dagozkion interesei eta estiloei egokitzea.
- Ahalik eta modu autonomoenean molda daitezen, oinarrizko gaitasun funtzionalak garatzen dituzten ikaskuntza-programak sustatzea.
- Beren buruaz ikuspegi positiboa lortzen laguntzea, horrela gauza baliagarriak eta positiboak egiteko gai direla ikus dezaten.

DBHko ikasgela egonkorreko ikasleei zuzendutako irakaskuntza planteatzerakoan kontuan hartu behar dira hezkuntzaren helburu eta ikaskuntzaren eduki egokienak aukeratzen laguntzen duten hainbat irizpide. Irizpide horien arten honako hauek dira nagusienak:

- ***Adin kronologikoa***

Minusbaliotasunen bat duten pertsonak ere beren adin kronologikoarekin loturiko premia pertsonalak dituzte, beren minusbaliotasunarekin zerikusirik izan gabe. Hezkuntza-programek barne hartu behar dituzte haien berdina direnei eta beren interesei buruzko erreferentziak, nerabe-adinari dagozkion jarduerak barne. Baliabide didaktikoak eta material didaktikoak kontu handiz aukeratu behar dira, ikasle nerabeen adina dagozkion moduan hautatuz. Baliagarria izango da benetako materialak, egunero erabiltzen direnak, erabiltzea, ikaskuntza funtzionalerako: larakoak, giltzak, kalkulagailuak, egutegiak, etengailuak, etab.

- ***Hezkuntza Premia Bereziak***

Gela egonkorreko ikasleen ikaskuntza honako hauek baldintzatzen dute:

- mugatua duen ikasteko gaitasuna; lor ditzakeen trebetasunen kopurua txikiagoa da.
- ikasteko moteltasuna; denbora gehiago eta esperientzia-kopuru handiagoa behar dituzte ikasteko.
- lortutako trebetasunak mantentzeko zailtasuna
- ikaskuntzak egoera batetik bestera eraman eta orokortzeko zailtasuna.

- ***Ikaskuntza funtzionalak***

Garrantzitsua da gizartean ahalik eta parte-hartze handiena izatea ahalbidetuko dieten trebetasunen eta zereginen irakaskuntzari lehentasuna ematea. Erabaki egin behar da funtzionaltasun-maila handia zein ikaskuntza-motak duten eta pertsona batek ingurune desberdinetan (eskola, aisialdia, elkarteak, etxea, etab.) autonomiaz moldatzeko zein trebetasun behar dituen, gaur egungo egoera nahiz etorkizunean ezagutuko dituen inguruneak kontuan hartuz.

- ***Trebetasun alternatiboak***

Komenigarria da eguneroko egoerak ahalik eta modu errazenean konpontzen laguntzen duten ikaskuntzei lehentasuna ematea. Garrantzitsuena da subjektua jarduera burutzeko gai izatea, jarduera hori funtzionala izatea eta behar adinako autonomiaz egitea; zeregin zehatz hori egiterakoan lortzen duen perfektzioa bigarren mailakoa da. Horretarako, oinarrizko ikaskuntzen alderdirik konplexuenaren ordean, funtzionaltasun bera edo antzekoa duten beste eduki alternatibo batzuk prestatu beharko dira.

- ***Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak***

Ikasleek estrategiak behar dituzte beraiekin erlazio zuzena duten gertakarietan eragin eta parte hartu ahal izan dezaten; zentzu honetan, gizarte- eta komunikazio-trebetasunak dira gehien behar dituztenak. Atzerapen garrantzitsuak dituzten pertsonen sarridan jokabide-arazoak izaten dituzte eta haserrealdiak, negatibismoa, etab. erakusten dituzte eta, hain zuzen, kasu larriek beraiekin dakarten komunikatzeko gaitasun-eza da jokabide horien jatorria. Curriculumaren zati garrantzitsu baten helburua ulertzeko eta ulertarazteko estrategiak irakastea izango da.

- ***Ikaskuntzaren eredu ekologikoa***

Minusbaliotasunak dituzten ikasleentzat errazagoa da trebetasunak ekintzak gertatzen diren testuinguru naturalean bertan lortzea, zailtasuna baitute ikasi, ikasitakoa orokortu eta egoera batetik bestera pasatzeko. Oso komenigarria izan daiteke oinarrizko trebetasunak ikasteko ibilbideak haiek beharrezkoak diren ingurune edo testuinguru errealean garatzea. Planteamendu honek, gainera, beti zaila gertatzen den arazo bat konpontzea eskatzen dio irakasle-taldeari: hau da, arlo edo eremu desberdinetako edukiak erlazionatzea, ikasleentzat, bere familiarentzat eta eskolarentzat oso esanguratsuak diren jarduera eta inguruneetan bateratuz.

- ***Hezkuntza-ingurunearen antolamendua***

Ingurunearen antolamendu egoki batek ingurua hobeto ulertzen eta normalean bertan gertatzen diren gertakariak aurreikusten laguntzen die ikasgela egonkorreko ikasleei eta, horrela, autonomia handiagoarekin molda daitezke. Ingurunea gakoan edo ikusmen edo entzumen bidezko beste laguntza batzuen bitartez egituratzeak helburutzat du ikasleek gertatuko denari, gertatuko den tokitari eta

beregandik espero denari buruzko informazio nahikoa aldeztatik jasotzea, bere ingurunea kontrolatzeko eta bertan eragiteko duen gaitasuna indartuz.

Ikaskuntza-ingurunearen diseinua elkarren artean lotuta dauden bi aldagai dagokie funtsean: espazioa eta denbora.

• ***Espazioaren antolamendua:***

Gertakariak errazago ulertzea eta hauek kontrolatzea ahalbidetzen duten seinaleen bitartez burutzen da. Piktogramak erabil daitezke espazio desberdinak seinalatzeko: ikasgelak, bulegoak, komunak, jangela, etab.; sail bakoitzerako sinboloak eta kartelak, bai eta bertan dauden pertsonen argazkiak ere; marrak, koloreak eta zintak, etab., sail desberdinetarako ibilbideak adierazteko, etab.; tresnak erabiltzeko adierazleak eta argazkiak, etab.

• ***Denboraren antolamendua***

Argazki, marrazki eta bestelako laguntza batzuen bidez eguneroko ekintza nagusiak denboran zehar antola daitezke, adibidez honako hauek adieraziz: burutuko diren zereginak, jadanik burutu diren zereginak, etab. Burutu ahala estali egingo diren ekintzen argazkiak erabil daitezke; zereginen argazkiak dituzten edo hauen sekuentzien marrazkiak dituzten agendak edo liburuak; txirrinak, musika, etab. bezalako entzumen-seinaleak, zeregin jakin bat noiz amaitzen den adierazteko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek helburu, jarduera eta antolatzeko modu jakin batzuk planteatzen dituzte beren Curriculum Proiektuetan, ikasleen aniztasuneko egoera desberdinei erantzuteko. DBHko ikastetxe batean, bere hezkuntza-premien ondorioz Ikasgela Egonkor batean hartzen diren ikasleak daudenean, ikasgelako hezkuntzaren asmoak zein diren ere aniztasunari erantzuteko neurrien artean jaso egin behar da.

Ondo dakigunez, gizarteratzea benetakoa izan dadin, ikastetxeak helburutzat ikasgelan integratzea eta bertako ikasleek ikastetxeko eguneroko jardueran parte hartzea duten ekintza jakin batzuk burutu beharko ditu nahita. Ikasgela egonkorreko ikasleei bakarrik ez, baizik eta ikastetxeko ikasle arruntei ere zuzendutako ekintzak planifikatu beharko dira, azken hauek minusbaliotasunak dituzten pertsonak ezagutu eta uler ditzaten eta beraiengan integrazioarekiko jarrera positiboak susta daitezten.

Komenigarria da ikastetxean Ikasgela Egonkorra sartzeari buruzko erabakiak Ikastetxearen Curriculum Proiektuan islatzea, helburu, jarduera eta hauek burutzeko modu gisa. Erabaki horiek funtsezko hiru alderdiri buruzkoak dira:

- ◆ Ikastetxeko elementu pertsonalak
- ◆ Ikastetxeko elementu materialak eta beren antolamendua
- ◆ Ikasle arrunten jarduerak

◆ ***Ikastetxeko elementu pertsonalak***

Barne hartzen ditu ikasleek dituzten irakasleen eta tutoreen antolamendua; laguntza-irakasleak eta beren dedikazioa; egin daitezkeen informazio-jardueren koordinazioa; departamentu desberdinetan burutu beharreko jarduerak; tutoretzatik burutu beharreko jarduerak; arloetako edukietan izan beharreko eragina, etab.

◆ ***Ikastetxeko elementu materialak eta beren antolamendua***

Barne hartzen ditu ikastetxeko altzarien erabilerari, espazioen banaketari eta ikasleek espazio horiek elkarrekin erabiltzeko moduari buruzko erabakiak. Hauen artean aipagarriak dira:

- Ikastetxeko altzariak eta ekipamendua. Hauen egokitzapena. Ikastetxeko ikasleek espazioez egiten duten erabilera.
- Ikastetxeko espazio komunen diseinua: jantokia, jolastokia, komunak, pasilloak, etab., beren erabilera errazteko.
- Espazio komunen antolamendua: banaketa, erabilera, sartzeko baldintzak, argitasuna, etab.
- Ikastetxeko espazio komunetan erabiltzeko baliabide didaktikoak aukeratu eta lantzea, hauetan ikasgela egonkorreko ikasleak eta ikastetxeko gainerako ikasleak autonomiaz moldatzea errazteko.
- Denbora antolatzea: ordutegiak finkatuko dira elkarrekin egitekoak diren jardueretarako, ikasgelako ikasleek espezifikoki erabiliko dituzten tokietarako, zeregin berezietarako, espazio komunak erabiltzeko eta abarretarako.

◆ *Ikasle arrunten jarduerak*

Ikasleen curriculum-arloei loturik, jarduerak antolatuko dira beste era bateko pertsonak ezagutzeko, kasu honetan, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak ezagutzeko; jarduera horien bitartez, integrazioarekiko jarrera positiboak garatu nahi dira. Horretarako, era honetako jarduerak planteatu daitezke:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioarekiko jarrera positiboak sustatzeko informazioa barne hartzen duten tutoretzako jarduerak.
- Ikastetxeko ikasleek pertsona desberdinen preminei buruzko informazioa jasotzeko jarduerak.
- Alderantzizko integratioko programak. Hauetan ikasleek gaitasun urriagoa duen beste ikasle bati beren borondatez laguntzen diote tutore gisa zeregin oso zehatzak burutzen: adibidez, jantokian, aisialdian, autobusean, etab.
- Minusbaliotasun desberdinei buruzko informazio-saioak, bereziki ikastetxeko ikasleen artean daudenei buruzkoak, informazio-bideoen, esperientzia pertsonalen azalpenen eta abarren bidez.
- Anai-arreben edo minusbaliotasunak dituzten beste senide batzuen esperientziak kontatzeko jarduerak.
- Ikasleei minusbaliotasunak dituzten pertsonak ezagutarazten dizkieten txostenak, kartelak, lanak, etab.

IKASGELA EGONKORRA IKASTETXEAN SARTZEA

Ikasgela abiarazteko garatu behar diren funtsezko zereginak bi dira: Informazioa eta Koordinazioa.

1. Informazioa.

Hasiera batean beharrezkoa da klaustroak, zuzendaritza-taldeak eta ikasleek nahikoa informazio izatea ikasgela egonkorren funtzioari buruz: zein helburu lortu nahi diren, ikasleek zein hezkuntza-premia dituzten, etab. Garrantzitsua da hezkuntza-eragile guztiek informazio egokia izatea eta ikasgela egonkorra bezalako baliabide baten funtzioa eta bertara joango diren ikasleen hezkuntza-aukerak ezagutzea. Informazio hori eskola osora zabaltzea eta bertako kide guztiei iristea litzateke onena. Halere, praktikan zaila da pertsona guztiek onarpen-maila eta sentsibiltate berberak izatea eta, beraz, informatzeko zereginak denbora gehiago behar izan dezake eta hasieran guztiz lortu gabe gera daiteke.

2. Koordinazioa.


Horrekin batera, ikasgela egonkorra abiarazteko eta ikastetxearen dinamika orokorrean sartzeko, komenigarria da koordinazio-jarduerak burutzen hastea, elkarrekin jardun dezaten ikasgela egonkorrean aritzen diren irakasleek eta ikastetxean lanean aritzen den koordinazio pedagogikoko batzordeak (zuzendaritza-taldea edo orientatzailea edo laguntza-irakasleak, etab. izan daitezke). Hasierako informazio-fasean nahiz lehen koordinazio-jardueretan garrantzitsua da laguntza-zerbitzuen aholkularitza izatea (talde multiprofesionala, orientazio-taldea, etab.); zerbitzu hauek ikasgelaren funtzioa argitzen, antolatzen eta eragile horien guztien koordinazioa dinamizatzen lagunduko dute.

Ondorengo fase batean komeni da ikasle arruntentzako jarduera zehatzak planteatzea, lehenago ere adierazi den bezala; horrelako jarduerak ikastetxearen urteko planean sar daitezke eta beren helburua batzuen eta besteen arteko ezagutzaren bitartez hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen integrazioa ahalbidetzea izango da.

Ikasgela egonkorrari dagokionez, ikastetxeak honako hauek planteatu ditzake:

- Ikastetxearen Curriculum Proiektuan ikasgela egonkorrarekin loturiko alderdiak sartzea: zein den bere funtzioa, zein ikasle-motari zuzenduta dagoen eta Ikasgelako Curriculum Proiektua zein den.
- Ikasgela egonkorrari dagokionez, ikastetxeko profesionalek dituzten funtzioak, bai eta ikasgela egonkorreko profesionalek dituztenak ere.
- Ikasgela abiarazteko koordinazio-saioak.
- Ikastetxeko elementu materialak eta beren antolamendua.
- Ikastetxeko kolektiboari zuzendutako informazio-saioak: irakasleak, ikasleak, irakasle ez diren langileak, guraso-elkarteak, etab.
- Beren ezagutza areagotzeko eta integrazioarekiko jarrera positiboak sustatzeko, ikastetxeko ikasle arrunteei zuzendutako jarduerak.

2. ESKEMA: DBHko Ikastetxearen Curriculum Proiektua eta Ikasgela Egonkorra



ikastetxeko
ikasleentzako
HELBURUAK

JARDUERAK

- *ikastetxeko ikasleei HP bereziei buruzko informazioa ematea
- *gaitasun handieneko ikasleek tutoretza-jardueretan parte hartzea
- *elkarrekin burutzeko jarduerak
- *elkarrekin erabiltzeko lekuak
- *komunikazio-modu desberdinetarako sarrera
- *senide minusbalioak dituzten ikasleen artean esperientziak elkarri kontatzea
- *HPB dituzten pertsonen buruzko lanak burutzea
- *ikastetxeko ikasleek piktogramen eta bestelako ikusmen-gako batzuen erabilera ezagutzea

ERANSKINAK

1. Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuko elementuak
Nola sar daiteke DBHko Ikastetxearen Curriculum Proiektuan?

Ikasgela egonkorraren funtzioa da minusbaliotasun handiak dituzten ikasleen ezaugarriei eta premiei egokitutako curriculum bat eskaintzea. Curriculum egokitzean *ezabatu* egin beharko dira minusbaliotasun handiak dituzten ikasleentzat garrantzi gutxien duten helburuak eta edukiak, beren premia zehatzei ondoen erantzuten dieten helburu osagarriak edo alternatiboak *aldatu* edo sartu beharko dira, edo minusbaliotasun handiak dituzten ikasleek behar duten bezalako garrantziarekin kontuan hartzen ez diren helburuak eta edukiak *gehitu* beharko dira.

Aldaketa horiek, bada, ekarriko dute *Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua*, bertan hartuko diren ikasleei egokitutakoa, beti ere, arlo horri lotutako beste erabaki batzuk ere aintzat hartuta: irakasteko modua, espazioa eta denbora antolatzeke modua, beharko dituzten laguntzak, beren premia berezietan erabili beharreko metodologia zehatza eta abar. Nahiz eta desberdintasun batzuk izan, ikastetxeak antzeko adina duten gainerako ikasleentzat proposatutako curriculumaren antzekoa da; izan ere, egitura berbera du eta ikastetxe arruntak eskaintzen duen ohiko irakaskuntzaren hezkuntza-antolamendu eta hezkuntza-jarduera berberak ditu oinarritzat.

Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua lantzean, curriculum arrunta erreferentzia garrantzitsua da hezkuntza-premia bereziak baloratzeko eta ikasgelako ikasleen oinarrizko premiak pertsona guztientzako -beren minusbaliotasunak kontuan hartu gabe- berdinak diren hezkuntza-helburuekin integratuko dituen hezkuntza-programa bat planifikatzeko. Ikasgela Egonkor bateko ikasleentzako curriculum ardatz bikoitza kontuan hartuta burutuko da:

- alde batetik, kontuan izango dira *ikasleen errealitatea* eta beren hezkuntza-premien ezaugarriak, beren adin kronologikoa eta interesak, behar izan ditzaketen etengabeko laguntzak, autonomia pertsonala lortzeko ezinbesteko ikaskuntzak, etab.
- bestetik, kontuan hartuko da *hezkuntza-etapa desberdinetarako* proposatutako curriculum, garapenean arazo larriak dituzten

ikasleen premietara egokitzeko eta beren mailaren eta beren eskolako eta familiako ingurunearen ezaugarrien arabera ikastea behar dutena zehazteko.

Ikasgela egonkorrari dagozkion curriculum-elementuak batzuk dira:

- ◆ Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua
- ◆ Ikasgela Egonkorraren Programazioa
- ◆ Lan Egitasmo Indibiduala edo Curriculum Egokitapena


◆ ***Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua***

Ikasgelako ikasleen premiei egokitutako irakatsi eta ikasteko jarduera zehazten duen esparru orokor bat da. Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua lantzean, komenigarria da curriculum arruntaren iturriak aztertzea. Iturri hauetariko bakoitzari buruzko hausnarketa egiteak helburu eta eduki esanguratsuenak eta irakasteko modu egokiena aukeratzeko informazio esanguratsua gehitzea ahalbidetzen du. Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua ikastetxeak egiten duen hezkuntza-eskaintza orokorraren zati bat da *3. eskemak* zehaztapen-prozesu hau aurkezten du laburbilduta.

◆ ***Ikasgela Egonkorraren Programazioa***

Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuaren zehaztapen bat da, denbora jakin baterako pentsatua izan dena (orokorrean ikasturte baterako). Bertan adierazten dira lehentasuna duten helburuak eta edukiak, jardueren antolamendua, ikasgelako ikasleen arazo zehatzetarako metodologia, ikasleak ebaluatu eta jarraitzeko modua, etab. Ikasgelaren programazioak, gainera, denbora-aldi jakin batean espazioaren eta denboraren antolamenduarekin, ordutegiarekin, ikastetxearen testuinguru arruntean besteekin burutu beharreko jardurekin, etab. erlazionatutako alderdiak jasotzen ditu.

3. **ESKEMA: Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiekturako curriculum-iturrietako informazioa**



◆ *Lan Egitasmo Indibiduala*

Garapenaren Nahaste Orokorrak dituzten ikasleen ezaugarrietako bat da beren taldearen barruan nahiz pertsona bakoitzaren hazkuntzan zehar beren premiek aldakortasun eta heterogeneotasun handia erakusten dutela. Eboluzio psikologikoko perfil bereziak dituzten garapen-prozesu indibidualak dira eta aldakortasun handia dute pertsona batetik bestera.

Ikasle bakoitzak beharrezko du eskolaketan zehar balorazioak egin daitezen, bere eboluzioaren une zehatz batzuetan premia jakin batzuei erantzuteko. Horregatik, ikasgela egonkor batean eskolatutako ikasle bakoitzak Curriculum Egokitzapen Indibidualtzat hartuko den Lan Egitasmo Indibiduala izango du, eta hori lantzeko erreferentzia Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua izango da. *4. eskema*

Nola abiarazi behar da Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua DBHko ikastetxe batean?

Praktikan, ikasgela egonkorra ikastetxe arrunt batean kokatuta egonik haren zati denez, ondoko galdera planteatzen da: *Nola lotu daitezke Ikasgela Egonkorraren curriculum-elementuak berau sartuta dagoen ikastetxe arruntaren elementuekin?*

Curriculumar betetzearen, ikastetxearen curriculum-proiektuak Ikasgela Egonkorreko ikasleentzako planteatzen den curriculum-proiektua jaso behar du, bere zati gisa: lortu nahi diren helburuak, lehentasuna duten edukiak, lan egiteko modua, etab.

Hezkuntza-helburuak betetzeko eta ikasgelako jarduera "ikastetxearen bizitzan" ahalik eta gehien integratuta egoteko, komenigarri da hainbat jarduera nahita proposatzea, ikasleek, batzuek zein besteek, desberdintasunen bat duten pertsonak ulertu ahal izan ditzaten eta ikastetxeko eguneroko bizitzan elkarreragineko uneak elkarrekin bizi ahal izan ditzaten. Ikastetxeko dinamikan, aniztasunaren tratamenduari loturik, irakatsi nahi diren baloreak argitu eta gizarteratzeko jarduerak planifikatu behar dira. Zentzu honetan honako puntu hauek azaldu beharko dira:

- Ikastetxean elkarrekin burututako jardueren bidez, espazio komunak erabiliz, etab. sustatuko diren helburuak eta baloreak.
- Desberdintasunak dituzten pertsonen buruz informatzeko eta berri emateko egin daitezkeen jarduerak; arlo bakoitzetik nola ekin dakioke gai horri?
- Ikastetxeko ikasleei proposatutako lankidetzak-jarduerak, HPB dituzten ikasleei, eta, batez ere, ikasgela egonkorrean direnei laguntzeko.

DBHko ikastetxean ikasgela egonkorrek betetzen duen funtzioa zehaztu ondoren, nondik hasi Ikasgelaren Curriculum Proiektua osatzen? Arlorik zehatzenak lantzea eta ikasgelaren funtzionamenduan berehala eragina izango duten alderdiak martxan jartzea; horixe da, hasieran, komenigarriena. Ikasgelako Curriculum Proiektua osatzerakoan, badirudi, oro har, curriculum osoa eta zabala diseinatu behar dela, baina, hemen, egitura orokorrak diseinatu aurretik, interesgarriagoa izan liteke, esaterako, Ikasgelako Programazioa egiten hastea.

Ondoko zereginetako batzuk burutu daitezke hasieran:

- Eguneroko jarduerak egituratzea
- Eguneroko edo asteko zereginen egutegi bat ezartzea, jarduerak zehaztuta
- Ikasgelako lanean beharrezkoak diren materialen egokitzapenak egitea
- Espazioa egituratu eta behar adinako ikusmen-erreferentziekin egokitzea: gakoak, piktogramak, argazkiak, etab. gizarte-ingurunea ulertzen laguntzeko
- Ikasgela egonkorreko ikasle bakoitzaren programa indibidualizatuan lehentasunak ezartzea
- Zuzendaritza-taldearekin, ikastetxeko Batzorde Pedagogoarekin eta Orientazio-taldearekin koordinatzea ikasle horiek ikastetxeko gainerako ikasleekin batera izango dituzten jarduerak, uneak eta tokiak.
- Jarduera komunak behar den bezala antolatzea: jantokia, jolastokiak, sarrerak eta irteerak, etab.; horretarako espazioak, ordutegiak, ikasleei eskaini beharreko arreta eta ikuskapena ere antolatzea.
- Ikasgela martxan jartzeko eta aurrera eramateko egin beharreko antolaketa-zeregin guztiak egitea.

ERANSKINAK

- 2. Ikasgela Egonkorraren Programazioko elementuak
- 3. Lan Egitasmo Indibidualeko elementuak

DBHko Ikasgela Egonkor batean garatzeko proposatzen dugun aukera curriculum funtzionala osatzea da. Curriculum-mota honek lehentasuna ematen die prozedurazko ikaskuntzei eta testuinguru desberdinetan -eskola, familia, gizartea, aisialdi-egoerak, lan-egoerak, etab.- modu funtzional eta autonomoan moldatzeko estrategia erabilgarriak lortzeari.

Aurreko ataletan azaldu dugu nahiko argi zergatik aukeratu dugun era honetako curriculum, eta ez beste batzuk, esaterako, ezagutza akademikoetan oinarritutakoak edo garapen-ezagutzak lortzekoak. Proposatutako curriculum, batez ere, ikasle horien hezkuntza-premietan oinarritzen da, beren ikaskuntza-ezaugarrietan eta etorkizunean autonomiaz moldatzeko lortu eta garatu beharko dituzten estrategietan. Inguru batzuetan ondo moldatzeko hainbat trebetasun-mota beharko dituzte, eta horiek ere hartu dira aintzat era honetako curriculum proposatzerakoan.

Curriculum antolatzerakoan, ikasi beharreko edukiak hainbat arlotan banatuko dira, hezkuntzako esperientziak zein esparrutan gertatzen diren, horietan. Planteamendu hau argiago ikusteko adibide bat ikasgela egonkorrek⁴ orientatzeko dokumentuan aurki daiteke, eta Bigarren Hezkuntzarako ere baliagarria da; dokumentu horretan 5 esperientzia-eremu proposatzen dira: nortasuna eta gorputza garatzea; autonomia lortzea eta arazoak konpontzen ikastea; inguru fisikoa ezagutzea; inguru soziala ezagutzea eta komunikatzen eta gauzak adierazten ikastea.

Hezkuntza Bereziko ikastetxeen curriculum proiektuari⁵ buruzko orientabideetan ere antzeko banaketa planteatzen da ondoko eremuetan: Nortasuna eta gorputza garatzea; autonomia lortzea eta arazoak konpontzen ikastea; inguru fisikoa ezagutzea; inguru soziala ezagutzea; komunikatzen eta gauzak adierazten ikastea eta eskulana, lanbidea eta lan-arloa garatzea.

⁴ *Orientaciones para el funcionamiento de Aulas Estable para alumnado con TGD*. 1. Dokumentua. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogia Berrikuntzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

⁵ *El proyecto Curricular en los centros de Educación Especial*. HPB saila. 9. zka. 1998. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz

Halere, beste erreferentzia batzuk ere har ditzakegu, adibidez Burutiko Atzerapenerako Elkarte Amerikarrak (AAMR⁶) gaur egun burutiko atzerapenez ematen duen definizioan eskaintzen duena; izan ere, elkarte horrek askoz ere baliagarriago hartzen du definizio hau bigarren mailako hezkuntzaren testuinguruan. Bertan, egokitzapen-trebetasunak 10 arlotan sailkatzen dira, eta arlo bakoitzean, gaitasun ugari lantzen eta eskuratzen da, autonomiaz moldatzeko beharrezko izango dituzten gaitasunak.

Hamar arlo hauetako bakoitzean, berez, ikasleei erabakiak hartzen lagundu nahi zaie, eta, era berean, zer-nolako laguntzak eman behar zaizkien zehaztu: zein motatako laguntzak eta zein neurritan. Dena den, helburua ikasleei eremu horietan moldatzeko beharko dituzten gaitasunak eta trebetasunak irakastea eta eskuratzea izanik, egoki iruditzen zaigu trebetasunen 10 arlo hauetan oinarritzea berriz, ikaskuntza-edukiak antolatzeko.

Garrantzitsua da, gainera, hezkuntza-zati honetan ikaskuntza-espazioak zabaldtu egiten direla adieraztea; izan ere, ikasleen adina eta beharrianak kontuan hartuta, funtzionalki ikasteko beharra dute, ekintzak non gertatzen diren, hantxe. Ikaskuntzarako espazio tipikoa ikasgela da, baina, hortik aurrera, beste espazio batzuk gehituko zaizkio ikastetxetik kanpo, jendartean eta gizartean; espazio horiek, esanguratsuak izateaz gain, oso beharrezkoak dira ikasleak etorkizunerako prestatzeko: aisialdia, zerbitzuak erabiltzea, lana, etab.

Ondoren, egokitzapen-trebetasunen 10 arloak deskribatuko ditugu, eta arlo bakoitzeko ikaskuntza-edukien ereduak ere bai.

- Komunikazioa
- Nork bere burua zaintzea
- Etxeko bizitza
- Gizarte-trebetasunak
- Elkartearen erabilera
- Nork bere burua arautzea
- Osasuna eta segurtasuna

⁶. *Retraso mental. Definición, clasificación y sistemas de apoyo*. American Association on Mental Retardation. 1997. Alianza. Madrid

- Trebetasun akademiko funtzionalak
- Aisialdia
- Lana (Lanean hasi aurrekoa)

PROPOSAMENA: Egokitzapen-trebetasunetan oinarritutako curriculuma

Ondoren deskribatuko dugun curriculuma AARMek definitutako 10 egokitzapen-trebetasunetan dago oinarrituta. Horietako bakoitzean honako hauek adierazten dira:

- Egokitzapen-trebetasuneko arloaren definizio bat.
- Arlo bakoitzari zentzua ematen dioten helburu orokor batzuk.
- Laguntza orokortua behar duten ikasgela egonkorreko ikasleei proposa dakizkiekeen ikaskuntzarako eduki-moten adibide bat.

Eduki horiek adibideen bitartez adieraziko direla-eta, zenbait puntu zehaztu behar dira:

1. Hamar arloetako bakoitzean erakusten den edukien proposamena abiapuntutzat hartu behar da. Ikasgela bakoitzari, ikastetxe bakoitzari eta funtsean pertsona bakoitzari egokitu behar zaio.

2. Ikasgelaren programazioa eta bereziki ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibiduala egiteko unea da ikasle bakoitzak behar-beharrezkoen dituen ikaskuntzak zein diren irizpide onenarekin aukeratzeko unea.

3. Ikaskuntzarako edukiak egokitzapen-trebetasunen 10 arlo hauek kontuan hartuz aukeratzea, azken batean, irakasteko orduan zeregina antolatzeke beste modu bat besterik ez da. Izan ere, oinarritzko ikaskuntza asko arlo hauetako bitan edo gehiagotan sar daitezke programazioaren xedeetarako. Adibidez: "*Laguntza eskatzen irakastea*" Komunikazioa, Gizarte-trebetasunak, Nork bere burua arautzea eta Lanari dagozkien arloetan sartuta egon daiteke. Praktikan gertatzen dena da, ikaskuntza hau bera zein jarduera funtzionaletan burutzen den kontuan izanik, ñabardura desberdin batekin irakasten direla. Berez, oinarritzko ikaskuntzak hezkuntza-praktikari zentzua ematen dion eskema bati jarraituz antolatzeke modua da, hau da, ikasleei irakatsi nahi diegunari eta haiek lor dezaten nahi dugunari zentzua ematen dion eskema bati jarraituz antolatzeke modua.

1. Komunikazioa

Inguruko informazioa ulertzeko eta espresatzeko beharrezkoak diren trebetasunei dagokie. Hauek barne hartzen dituzte forma sinbolikoak nahiz hitz esana edo idatzia; bai komunikazio-sistema handigarriak (sinboloa, grafikoak, zeinu bidezko hizkuntza, etab.) bai eta forma ez sinbolikoak ere (aurpegiko espresioa, gorputzaren mugimendua, keinuak, etab.). Gainera, besteen emozio-mundua ulertzeko eta nor bere sentimenduak adierazteko gaitasunari ere badagokio.

Helburuak

- Hitzekoak diren nahiz hitzekoak ez diren komunikazioko estrategiak garatzea
- Ulertzea eta ulertaraztea
- Oinarrizko beharrak, pentsamenduak eta sentimenduak adieraztea
- Ohiko inguruetan komunikazioko estrategiak erabiltzea modu funtzionalean

Ikasteko

- *Komunikazioko baliabide gehiago eta/edo bide alternatiboak erabiltzeko trebetasunak lortzea.*
- *Oinarrizko komunikazio-jokabideak lortzea: seinalatzea, begiratzea, imitatzea, begirada erabiltzea, etab.*
- *Eguneroko ingurunean esanguratsuak diren objektuak, pertsonak eta ekintzak identifikatzea.*
- *Objektuei, ekintzei eta pertsonari dagozkien irudi edo grafikoak identifikatzea.*
- *Irudiak eta sinboloak komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko baliabide gisa ezagutu eta erabiltzea.*
- *Argibide sinpleak ulertzea.*
- *Ahozkoak edo ez-ahozkoak diren komunikazio-sistemen bidez oinarrizko premiak adieraztea: zeinu bidezko hizkuntza, erabateko komunikazioa, piktogramak, etab*
- *Produktzio funtzionalak erabiltzea, ahozkoak zein ez-ahozkoak, bere oinarrizko premiak, gertakariak, eguneroko gertakizunak, etab. ezagutarazteko.*
- *BAI eta EZ adierazteko seinaleak, keinuen, hitzen eta antzekoen erabileraren bidez.*
- *Sentimenduak, gogo-aldarteak eta nahiak hitzeko baliabideen nahiz hitzekoak ez diren baliabideen bidez adieraztea.*
- *Besteen gogo-aldarteak ulertzea.*
- *Besteen keinuak, adierazpenak, etab. ulertzea eta identifikatzea.*
- *Mezuak gertaerak eta jarraibide errazak ulertzea ikusizko seinaleen, argazkien, marrazkien eta abarren bidez.*
- *Ohiko gertaerak ulertzea.*
- *Pertsonak, animaliak, objektuak edo ekintzak deskribatzea hitzen nahiz keinuen bidez.*
- *Egoera desberdinetan komunikazioko estrategia funtzionalak erabiltzea: amaitu dut, falta zait, behar dut, norekin?, non dago?, etab.*
- *Sinboloen, argazkien, ahoko hizkuntzaren eta abarren bidez esaldi sinpleak osatzea.*
- *Testuinguru desberdinetan adierazpen-hizkuntza funtzionala lortzea: ikasgela, lantegia, jantokia, etab.*
- *Gizarte-arauak, keinuen arauak edo hizkuntzaren arauak behar bezala aplikatzea.*
- *Inguruko pertsona esanguratsuak ezagutzea eta haien arreta eskatzen jakitea.*
- *Eskaerak eta beharrak adierazteko trebetasunak erabiltzea. (Protoagintera)*
- *Objektuak banatzeko eta nahiak adierazteko trebetasunak garatzea. (Protodeklaratiboa)*
- *Laguntza eskatzeko, zerbaiti uko egiteko, protestatzeko, etab. estrategiak erabiltzea.*
- *Informazioa eskatzeko komunikazio-estrategiak lortu eta erabiltzea.*
- *Informazioa pasatzea ahalbidetzen duten estrategiak lortu eta erabiltzea.*
- *Mezu sinpleak ulertzeko piktogramak edo sinboloak identifikatzea.*
- *Eskatzeko, deitzeko, eskerrak emateko, ezetz esateko... hitzak edo keinuak erabiltzea.*
- *Subjektu bakoitzak duen ahoko hizkuntza erabilera funtzional batekin erabiltzea.*
- *Inguruko informazioa ulertzeko estrategiak lortzea: jantokia, jolastokia, etab.*
- *Esfinterrak kontrolatzeko beharrezkoak diren oinarrizko komunikazio-trebetasunak aplikatzea.*
- *Eguneroko egoeretan autonomia emango dioten oinarrizko komunikazio-estrategiak lortu eta erabiltzea: aisialdian, elkartean, eskola-ingurunean, etab.*
- *Esaldi sinpleen erabilera (subjektua+aditza+objektua) zentzu funtzionalarekin.*
- *Baiezko, ezezko eta galderazko esaldi errazen erabilera funtzionala.*
- *Adjektiboak, oinarrizko kontzeptuak, etab. kalifikatzeko aukera emango duten hitzen nahiz keinuen bidezko hizkuntza lortu eta erabiltzea.*
- *Taldeko arreta- eta kezka-jokabidearen garapena: elkarriketetan txanda eskatzea, txandakatzeko jokoak etab.*

2. Nork bere burua zaintzea

Arlo honek barne hartzen ditu norberaren zaintzarekin, garbiketa pertsonalarekin, elikadurarekin, jantziekin, higienarekin eta norberaren itxurarekin erlazionatutako trebetasun guztiak. Hauek irakastea kontuan hartu behar dira ikasleen adina, nerabeak direnez heldutasun-bizitzarako bidean baitaude, eta honen ondorioz agertzen diren premia pertsonal berriak.

Helburuak

- Bere gorputza eta oinarrizko behar pertsonalak ezagutzea.
- Gizarte-ingurunean parte-hartzea bultzatuko duten zainketa pertsonalari dagozkion ohiturak eskuratzea.
- Norberaren gorputzari, espazio fisikoari eta gizarte-inguruari dagozkien mugimenezko esperientziak eta esperientzia kognitiboak eta afektiboak esperimendatzea, ezagutzea eta identifikatzea.
- Eguneroko bizimoduari dagozkion jardueretan autonomiaz eta independentziaz jardutea.
- Ongizate fisiko eta pertsonala eskuratzea.

Ikasteko edukiak

- *Bere gorputzaren irudiaz ohartzea: bere burua ezagutzea, bere argakia identifikatzea...*
- *Bere ezaugarri pertsonalak ezagutzea: sexua, altuera, ilearen kolorea...*
- *Bere nortasun-ezaugarriak ezagutzea: izena, adina, familia osatzen duten kide-kopurua, bere etxearen kokapena...*
- *Bere gauzak eta objektu pertsonalak identifikatzea.*
- *Esfinterrak kontrolatzeko trebetasunak ikastea: itxaroten jakitea, komuna bilatzea, barruan norbait dagoela jakitea, komunera bakarrik sartzea...*
- *Komuna autonomiaz eta bakarrik erabiltzeko ohiturak hartzea.*
- *Higiene pertsonaleko oinarrizko ohiturak hartzea.*
- *Garbitzearekin lotutako trebetasunak garatu eta erabiltzea: orraztea, hortzak garbitzea, burua garbitzen laguntzea, dutzatzea...*
- *Bere burua garbitzeko tresnen erabilera funtzionala: toaila, xaboia, musuzapia, bizarra kentzeko makina, ile-lehorgailua, koloniak, kremak...*
- *Janztearekin eta eranztearekin lotutako ohiturak hartzea.*
- *Janztearekin eta eranztearekin lotutako trebetasunak garatu eta erabiltzea: kremailearen erabilera, botoiak, belkroak, sokak, kortxeteak...*
- *Elikatzeko tresnen erabilera funtzionala: labana, ezpain-zapia, txarroa, azpila, edalontzia...*
- *Elikatzeko oinarrizko trebetasunak ikastea: labanarekin moztea, txarroatik zerbitzatzea...*
- *Bere burua zaintzeko ohiturak ikastea.*
- *Sentsazio atseginak eta desatseginak, poza/haserrea etab. identifikatzea*
- *Gorputzaren sentsazioak identifikatzea: hotza, beroa, nekea, logura, gosea... eta horiek adierazteko komunikazioko estrategiak garatzea.*
- *Gorputzeko atalen minak identifikatzea: burua, haginak, urdaila, hilekoa... eta horiek adierazteko komunikazioko estrategiak garatzea.*
- *Nerabearoko garbiketa eta higiene pertsonaleko ohiturak hartzea: hilekoaren higiena, bizarra kentzea, nork bere burua zaintzea...*
- *Sendagaiak kontrolatzeko eta hartzeko gero eta autonomia handiagoa garatzea.*
- *Sendagaiak identifikatzea eta norbaiten laguntza eta oniritzia eskatzea.*
- *Dietarako elikagai egokien eta debekatutako elikagaien identifikazioa.*
- *Espazioarekin eta denborarekin lotutako bizipen pertsonalak ikastea.*
- *Denboraren bereizketa: lo egiteko ordua, eskolara joateko ordua, etxera itzultzeko ordua...*
- *Ariketa osasungarriak egiteko ohitura hartzea: ibili, igerian ibili, eskailerak igo, etab.*
- *Mugimenezko trebetasun berriak lortzea eskatzen duten jardueretan gorputza kontrolatzeko ohiturak hartzea: leku-aldaketak, miaketa, etab.*
- *Kirola egin aurreko jardueretarako gorputza kontrolatzeko ohiturak hartzea: bizikleta, patinak erabiltzea, igeri egitea, etab.*

3. Etxeko bizitza

Arlo honek barne hartzen ditu etxeko bizitzan autonomiaz moldatzeko beharrezkoak diren trebetasunak. Jantziak zaintzea, janaria prestatzea, etxeko segurtasunaz arduratzea, etxebizitzako gauzak mantentzea, etab. bezalako zereginen garapenari dagokio. Multzo honetako trebetasun askok lotura dute gizartean sartzeari dagozkion trebetasunekin, adibidez: etxean, auzoan, etab. izan beharreko jarrera; lotura du ere lehenetsunak jakinaraztearekin edo etxeko zeregin batzuetan trebetasun akademiko funtzionalak aplikatzearekin.

Helburuak

- Ongizate fisikoa eta emozionala lortzea inguru hurbilean eta familian: alegia etxean.
- Familia-ingurunean autonomiaz moldatzea.
- Gizarte-ingurunean parte hartzea ahalbidetuko dioten bere burua zaintzeko ohiturak hartzea.
- Eguneroko bizitzari dagozkion jardueretan autonomiaz eta independentziaz aritzea.
- Etxean autonomiaz jokatzeko ahalbidetuko dioten trebetasunak ikastea

Ikasteko edukiak

- *Etxean esperientzia esanguratsuak gertatzen diren toki eta unea bereiztea: jatea, atsedean hartzea, lo egitea, garbitzea, jolastea...*
- *Familiaren egunerokotasunari loturiko zereginak identifikatu eta burutzea.*
- *Jantzia erabiltzeko oinarriko ohiturak eta arauak ikastea: amaitu arte ez altxatzea, zerbitzatzea, azpila erabiltzea, edalontzia erabiltzea, etab.*
- *Garbitasunarekin lotutako trebetasunak garatzea: platerak garbitu eta lehortzea, arropa zintzilik jartzea, pintzak erabiltzea, erratzaz garbitzea, garbigailua betetzea, etab.*
- *Garbitzeko produktu arruntak modu egokian erabiltzea*
- *Etxeko hondakinak bereiztea: papera, janaria, etab.*
- *Zabor desberdinak sailkatzea.*
- *Zabor-ontzia modu egokian erabiltzea: zaborrak sartzea, beteta dagoenean ixtea, kanpora ateratzea, poltsa berria jartzea...*
- *Elikadurarekin lotutako trebetasunak garatu eta erabiltzea: mahaia jartzea eta jasotzea, tresneria jasotzea eta antolatzea...*
- *Elikagaien prestakuntzarekin lotutako trebetasunak garatu eta erabiltzea: sukaldean laguntzea, ogitartekoa prestatzea, cola-cao bat prestatzea, ogia gurinaz igurtzea, elikagaiak zuritzea, irabiatzea, bota gabe nahastea...*
- *Elikagaiak prestatzeko oinarriko zereginak egitea: pisatzea, neurtzea, zatitzea...*
- *Errezeta erraza egitea, besteek nola egiten duten ikusiz edo ahozko aginduak kontuan hartuz: entsalada, irabiakia...*
- *Errezeta erraza prestatzeko elikagai egokiak aukeratzea*
- *Ostilamenduaren zainketarekin lotutako trebetasunak garatzea: arropa ondo tolestea, arropa zuria jasotzea, jantzi bat lisatzea, ohea egitea...*
- *Etxeko tresna elektrikoak behar bezala erabiltzea: garbigailua, mikrouhin-labea, aspiradora, ile-lehorgailua, irratia, kasetea, telebista, berogailua, etab.*
- *Etxeko eremu desberdinak ezagutzea eta orientatzen jakitea.*
- *Baxera toki egokian gordetzea: edalontziak, platerak, mahai-tresnak, etab.*
- *Etxeko tresnak gordetzeko altzari egokiak bilatzea: zapatak gordetzeko armairua, arropa zuria gordetzeko, garbitzeko produktuak gordetzeko, etab.*
- *Etxeko bizimoduan beharrezkoak diren tresnak modu egokian erabiltzea: ordularia, telefonoa, iratzargailua...*
- *Ordularia zuzen erabiltzea: orduak ezagutzea, erdiak, etab.*
- *Telefonoa zuzen erabiltzea: deitzen dutenean hartzea, erantzutea, norekin hitz egin nahi duten jakitea, etab.*
- *Ezagunen bati hots egiteko telefonoa erabiltzea.*
- *Etxeko landareak zaintzea: ureztatzea, landareei hosto lehorrak kentzea...*
- *Animaliak (zakurra, katua...) zaintzeko janari erraza prestatzea (aurrez prestatutakoa)*
- *Eguneroko bizimoduari loturiko arazoak laguntzarekin konpontzea.*

4. Gizarte-trebetasunak

Barne hartzen ditu beste pertsona batzuekin elkarreragin bat hasi, mantendu eta amaitzea, elkarreragineko egoerak ulertu eta behar bezala erantzutea, nor bere sentimenduak eta gogoaldarteak eta besteenak ezagutzea etab. bezalako gizarte-trukeetan beharrezkoak diren trebetasunak. Horrez gain, barne hartzen ditu besteen jokabidearen arabera norberaren jokabidea arautzeko trebetasunak, bai eta egoera bakoitzari dagokion portaera sozial eta afektibo bat erakutsiz harremaneko, adiskidetasuneko, maitasuneko eta abarreko lotura desberdinak ezartzeko trebetasuna ere.

Helburuak

- Gizartea, beste pertsonak eta pertsona horien jokaera ulertzeko estrategiak garatzea
- Norberaren portaera antzeman, kontrolatu eta artikulatzea, besteak kontuan hartuz.
- Egoera bakoitzaren arau eta balioak ezagutzea eta horien arabera egokitzea
- Beste pertsona batzuekin batera harreman-gune desberdinetan parte hartzeko gizarteko trebetasunak eta loturak ezartzea
- Besteekiko harremanetan interesa, jakin-mina eta gozamina garatzea

Ikasteko edukiak

- *Elkarreraginezko jokaerak izatea: ikusmenean oinarritutako arreta, ukipen fisikoa onartzea*
- *Agurtzeko keinu edo hitz egokiak erabiltzea*
- *Eskatzeko, deitzeko, eskerrak emateko,... hitzak edo keinuak garatu eta erabiltzea*
- *Gizarteko ekintza arruntak identifikatzea: kaixo eta agur esatea, zoriontzea, etab.*
- *Gizarteko ekintza arruntak egitea: kaixo eta agur esatea, zoriontzea. etab.*
- *Gizarteko elkarreraginean eskaera errazei erantzuteko jarraibideak garatzea: izena, adina, helbidea etab.*
- *Bere inguruko familiarrak eta pertsona esanguratsuak izenez ezagutzea.*
- *Espazio ezagunak bertan kokatzen diren pertsonekin erlazionatzea, kartelen, marrazkien eta abarren bidez.*
- *Besteekiko gizarte-trukean objektuak erabiltzea*
- *Oinarritzko emozioak identifikatzea bere buruan nahiz besteengan: haserrea, poza, etab.*
- *Aurpegierak eta gogo-aldarteak identifikatzea: barrea, pena, poza...*
- *Gizarteko elkarreraginezko egoeren simulazioa eta imitazioa: telefonoz hots egitea, kafetegi batean zerbait eskatzea, sendagilearengana joatea, etab.*
- *Errealitatearen fikziozko jokoak eta simulazioak garatzea beste norbaiten laguntzarekin: lagun bat zinera gonbidatzea, sentimendu bat adieraztea, etab.*
- *Ekintzak simulatzeko mugimenezko gaitasunak eta adierazteko gaitasunak garatzea: lo egitea, orraztea, festa batera joatea, gonbidapen bat eskatzea, etab.*
- *Gogo-aldarteak simulatzeko mugimenezko gaitasunak eta adierazteko gaitasunak garatzea: haserrea, tristura, poza, beldurra, lasaitasuna, etab.*
- *Bizikidetzako, aisialdiko jardueretan parte hartzeko eta abarrerako oinarritzko arauak ikastea*
- *Taldeko joko arautuetan parte hartzeko ezagutzak ikastea: dama-jokoa, antzara-jokoa...*
- *Jardueren artean itxaroten jakitea, pertsona heldua beste zereginen bat egiten ari denean edo beste ikasle batzuekin dagoenean*
- *Taldeko jolasetan parte hartzeko estrategiak ikastea*
- *Taldeko jokabidearen garapena: txanda eskatzea, txandakatzeko jokoak etab.*
- *Ardura adierazten duten jokabideak garatzea: bestearenganako interesa agertzea, galdetzea...*
- *Gezurrezko egoerak ezagutzea*
- *Aisialdiaz gozatzeko beharrezkoak diren gizarte-trebetasunak garatzea*
- *Lan-munduan sartzeko beharrezkoak diren gizarte-trebetasunak garatzea*
- *Elkarreragin bat hasi, mantendu eta amaitzeko jarraibideak garatzea*

5. Komunitatearen erabilera

Arlo honek barne hartzen ditu gizartearen baliabideak autonomiaz eta modu egokian erabiltzeko beharrezkoak diren trebetasunak. Ohikoenak dira garraioa, komunikabideak, dendetako, erostetxe handietako eta supermerkatuetako erosketak, etab., bai eta osasun-zentroak eta beste zerbitzu publiko batzuk ere: eskola, liburutegia, aisialdirako espazioak, etab. Hemen sartzen dira autonomiaz moldatzeko ezinbestekoak diren trebetasunak eta hauei loturiko beste batzuk, adibidez: gizartean egokia den portaera, lehenetsuen eta premien adierazpena, gizarte-trukea eta gizartean trebetasun akademiko funtzional batzuk aplikatzea.

Helburuak

- Eguneroko bizitzan inplikaturako mugimenezko eta gizarteko trebetasunak garatzea
- Inguru hurbileko testuinguru desberdinetan autonomiaz eta bere kabuz mugitzen ikastea: auzoan, kalean, eskolan, aisialdiko ekintzetan...
- Gizartean parte hartzeko beharrezkoak diren zerbitzuak autonomiaz erabiltzea: garraioak, komunikabideak, erakundeak, gizarte-zerbitzuak...
- Inguruko arau eta balioak ezagutzea eta jokabidea horien arabera egokitzea
- Gizarteko egoera arruntetan eta kultur jardueretan parte hartzea

Ikasteko edukiak

- *Bizitzako esperientzia esanguratsuak gertatzen diren une eta tokia bereiztea: elikadura, atsedena, higiena, jolasa, ikaskuntza...*
- *Toki bakoitzeko material berezien kokagunea ezagutzea eta horien erabilera eta helburua ezagutzea, argazkien, marrazkien, objektuen, seinaleen eta zereginen bitartez bultzatuz*
- *Gizartean erabiltzen diren sinboloak ezagutzea: autobusa, metroa, taxia, debekatuta, komunak etab.*
- *Inguru hurbila zaintzeko trebetasunak ikastea: zabor-ontzia erabiltzea, landareak ureztatzea, etab.*
- *Normalean erabiltzen diren gelak zaintzeko trebetasunak garatu eta erabiltzea: erratzaz garbitzea, ureztatzea, tresnak gordetzea, etab.*
- *Ikastetxeko eta inguru hurbileko geletan mugitzeko orientabide-estrategiak ikastea eta erabiltzea*
- *Inguru hurbilean jokabide autonomoa izatea: mezuak eramatea, objektuak mugitzea, etab.*
- *Gela eta areto desberdinak funtzionalki eta modu egokian erabiltzea: liburutegian liburu bat begiratzea, sukaldean janaria prestatzea, egongelan telebista ikusteak, etab.*
- *Kalean autonomiaz jokatzeko trebetasunak garatzea*
- *Gizarteko zerbitzuak identifikatzea: okindegia, farmazia, denda, zinea, etab.*
- *Inguruko garraio arruntak erabiltzeko trebetasunak ikastea: bere autobusa, trena edo metroa ezagutzea, ibilbide arruntetan garraioa erabiltzea, etab.*
- *Telefonoaren erabilera funtzionalerako trebetasunak ikastea: zenbakia ikastea, deitzen ikastea, erantzutea, etab.*
- *Posta-zerbitzuaren erabilera funtzionalerako trebetasunak ikastea*
- *Inguruko dendetan erosketak egiteko trebetasunak aplikatzea: okindegian, dendan, kioskoan...*
- *Erosketetan eta aisialdiko jardueretan diruaren erabilera funtzionala: moneta arruntak ezagutzea, kopurua ezagutzea, atzerakoan zain egotea...*
- *Bide-segurtasuneko ohiturak hartu eta aplikatzea: semaforoak eta zebrabidea ezagutzea, espaloiak erabiltzea*
- *Autonomiari dagozkion trebetasunak garatu eta erabiltzea aisialdian (ikus 9. trebetasuna)*
- *Paseatzeko ibilbideen bitartez inguru naturala erabiltzeko eta inguru horretaz gozatzeko estrategiak aplikatzea*
- *Gizarteko gertaera esanguratsuak eta kulturalak ezagutzea eta horietan parte hartzea*
- *Eskolako gertaera garrantzitsuetan eta kultur adierazpen esanguratsuetan parte hartzea: eskolako jaiak, Gabonak, Inauteriak, Santa Ageda, San Blas, Olentzaro, etab.*

6. Nork bere burua arautzea

Trebetasun-multzo hau gizarte-elkarreragin askotan autonomiaz moldatzeko beharrezkoak diren estrategia pertsonalei dagokie: beharrezkoa denean laguntza bilatzea, arazo ezagun edo berri bat konpontzea, nahiago duena aukeratzea, etab. Gainera, eragina dute nork bere jokabidea kontrolatzeko eta ekintza planifikatzeko gaitasunean, adibidez: zenbait gauzaren artean aukeratzea, egoerari dagozkion ekintzak hastea, ordutegi bat ikasi eta jarraitzea, zeregina amaitzea, gurari edo interes bat adieraztea, etab. Adierazpen-trebetasunak eta autodefentsako trebetasunak barne hartzen dituzte, besteak beste ezetz esatea, uko egitea, etab.

Helburuak

- Norberaren oinarritzko beharrak identifikatzea eta modu aktiboan ebaztea
- Gizarte-trukea arautzen duten jokabideak eta txandak errespetatzea
- Norberaren jokabidea kontrolatzea eta artikulatzea, besteen jokabidea kontuan izanik
- Gizarteko testuinguru bakoitzeko arau eta balio bereziak ezagutzea eta horietara egokitzea
- Taldean bere burua definitzea, bere interes eta gustuak kontuan izanik

Ikasteko edukiak

- *Gorputzaren erritmoa antzematea eta kontrolatzea: lo-aldiak eta esna-aldiak, lana eta atsedena, etab.*
- *Sentsazio atseginak eta desatseginak identifikatzea: barrea eta negarra, poza eta haserrea, etab.*
- *Besteak bereiztea: izena, adina, helbidea, etab.*
- *Norberaren ezaugarriak ezagutzea: sexua, altuera, pisua, etab.*
- *Norberaren gustuak, sentimenduak eta emozioak identifikatzea.*
- *Gustu pertsonalen ezagutza eta identifikazioa: atsegin dituen gauzak eta atsegin ez dituenak, zaletasunak, bazterketak, etab.*
- *Emozioak eta horiek sortzen dituzten egoera naturalak lotzea: haserrea, poza, bazterketa, beldurra, etab.*
- *Ordutegiak ezagutzea eta onartzea: lo egiteko ordua, eskolara joateko ordua, aisialdia, telebista ikusteko unea, etab.*
- *Eguneroko zeregin arruntetan norberaren jokabidea arautzea: txandak itxarotea, gauzak jasotzea, agintzea, sartzeko eta irteteko espazioak errespetatzea, etab.*
- *Giroan eta eguneroko gauza arruntetan aldaketak onartzea eta jokabide egokia garatzea*
- *Jardueren artean itxaroten jakitea, pertsona heldua beste zereginen bat egiten ari denean edo beste ikasle batzuekin dagoenean*
- *Ekintzak eta leku-aldaketak denbora-aldaerari egokitzeko kontrola lortzea: azkar, poliki, laster, etab.*
- *Ekintzak eta leku-aldaketak espazio-aldaerari egokitzeko kontrola lortzea: hemen, barruan, urruti, etab.*
- *Eguneroko bizitzan gertatzen diren aldaketetara moldatu eta onartzea.*
- *Jolasetan edo kiroletan parte hartzeko beharrezkoa den mugimenduaren kontrola ikastea: fitxak sartzeko, txanda itxarotea, kartak banatzea, piezak biratzea, baloia askatzea, etab.*
- *Jantokiko jardueretan parte hartzeko beharrezkoak diren mugimenduen kontrola ikastea: txanda itxarotea, ordena errespetatzea, janari-kopurura egokitzea, etab.*
- *Lantegiko jardueretan parte hartzeko beharrezkoak diren mugimenduen kontrola ikastea: piezak gordetzea, txanda itxarotea, zeregin baten sekuentziari jarraitzea*
- *Aurreratzeko eskemak garatzea eguneroko zereginak ikasiz*
- *Entzunezko edo ikusizko seinaleen bidez aurreratzeko eskemak ikastea: sirenak, musika, kolorezko txartelak, etab.*
- *Seinaleak (entzumenezkoak, ikusmenezkoak, sozialak, etab.) gertakariak aurreratzeko ahalbidetzen dioten eguneroko gertaerekin lotzea.*
- *Interesatzen zaizkion gauzak edo jarduerak (biren edo gehiagoren artean) aukeratzea ahalbidetzen dioten trebetasunak aplikatzea: zein postre nahi duen, zein jolas aukeratu duen, zein film ikusi nahi duen, etab.*
- *Zeregin bat amaitu duela esateko edo laguntza eskatzeko trebetasunak aplikatzea*
- *Adierazpenezko trebetasunak garatzea: baztertzea, ezetz esatea, atsegin ez duela adieraztea, lehentasuna adieraztea, etab.*
- *Galdetzeko, informazioa eskatzeko, zer falta den esateko eta abarrerako trebetasunak ikastea eta erabiltzea*

7. Osasuna eta segurtasuna

Norbera zaindu eta osasuna mantentzeko nahiz egoera fisikoak ezagutzeko, lehentasunak eta premiak adierazteko, lehen sorospenetarako, sexualitate-ohituretarako eta abarrerako beharrezkoak diren trebetasunei dagokie. Horiez gain hemen sartzen dira norberaren segurtasunerako eta babeserako ohiturak garatzea eta oinarritzko estrategiak menperatzea.

Helburuak

- Osasunari, higienerari eta ongizateari buruzko oinarritzko ohiturak izatea
- Oinarritzko beharrak antzematea, identifikatzea eta konponbide bilatzea
- Inguru fisikoan eta sozialean sor daitezkeen egoera arriskutsuez ohartzea
- Bere burua zaintzeko, defendatzeko eta segurtasun pertsonalerako gizarte-trebetasunak ikastea
- Komunitatean eta gizarteko harremanetan parte hartzeko ongizate pertsonala eskuratzea

Ikasteko edukiak

- *Gorputzaren erritmoa antzeman eta kontrolatzea: arnasketa, loa, esna-aldiak, elikadura, higiena, etab.*
- *Tentsioarekin, erlaxazioarekin eta abarrekin erlasionatutako pertzepziozko esperientziak izatea.*
- *Norberaren gorputzaren irudi bat izatea: nork bere burua ezagutzea, etab.*
- *Nork bere burua zaintzeko oinarritzko ohiturak hartu eta aplikatzea*
- *Norberaren zainketarekin lotutako sentsazio pertsonalak identifikatzea: nekea, gorputzaren atal bateko mina, etab.*
- *Objektu zorrotz edo ebakitzaileak (guraizeak, labana, etab.) behar bezala erabiltzeko trebetasunak garatu eta erabiltzea.*
- *Egunero erabiltzen diren tresna elektrikoek erabilera egokirako trebetasunak ikastea: ile-lehorgailua, ur beroaren termoa, sukaldea, mikrouhin-labea...*
- *Ura, sua, sukalde elektrikoa, ur beroa, berogailuak etab. erabiltzerakoan arriskuak baloratzea*
- *Eguneroko bizimoduko tresnak eta arrisku-faktoreak ezagutzea: entxufeak, arantzak, eskailerak, leihoak, kaleetako trafikoa, segurtasun-uhalaren erabilera...*
- *Bide-segurtasunerako eta segurtasun pertsonalerako ohiturak aplikatzea*
- *Segurtasunarekin lotutako zerbitzuen identifikazioa: suhiltzaileak, udaltzaina, etab.*
- *Osasunarekin erlasionatutako zerbitzuak identifikatzea: ambulanzia, ospitalea, farmazia, etab.*
- *Errealitateko egoerak simulatu eta imitatzea: farmaziara erostera joatea, telefonoz deitzea, laguntza eskatzea, osasun-zentrora joatea, etab.*
- *Gizartean arriskua izan dezaketen egoeren identifikazioa: toki bakartiak, tratu txarrak edo abusuak, etab.*
- *Babesteko estrategiak ikastea dramatizazioen eta simulazio-jokoek bidez: ezetz esatea, laguntza eskatzea, abusu pertsonaleko egoerak identifikatzea, etab.*
- *Norberaren osasuna zaintzeko estrategiak ikastea simulazio-jokoek edo dramatizazioek bidez: dentistara joatea, ginekologoarengana joatea, zauri bat duela esatea, etab.*
- *Ingurua ulertzeko estrategiak aplikatzea egoera larriak ezagutzeko: sirenak, txirrinak, etab.*
- *Zainketarekin eta osasunarekin lotutako inguruko kartelak identifikatzea: ez erretzeko kartelak, ospitalea adierazteko kartelak, larrialdietako irteera adierazteko kartelak, farmazia dagoela adierazten dutenak, etab.*
- *Helduari arrisku baten berri emateko komunikazioko estrategiak garatzea: sua, zaurituta edo gaixorik dagoen pertsona, istripua, etab.*
- *Larrialdietarako telefono-zenbakiak ezagutzea: SOS, etab.*
- *Telefonoaren ezagutza eta erabilera funtzionala larrialdietan: gertuko senideren bati hots egitea, SOSera hots egitea, etab.*
- *Gaixotasun arruntak eta horiek aurreikusteko modua ezagutzea*
- *Oinarritzko lehen-mailako laguntzak ezagutzea: zauri bat garbitzea, tiritita bat jartzea, ur oxigenatua erabiltzea, etab.*
- *Ohiko sendagaia norbaiten laguntzarekin hartzea*
- *Ohiko sendagaia hartzeko autonomia garatzea*

8. Trebetasun akademiko funtzionalak

Multzo hau tradizionalki eskolako ikasketen bidez garatu izan diren trebetasun kognitibo orokorreari dagokie. Halere, hemen, beren izaera funtzionala kontuan izanik, bizitza praktikoa aplikazioa izatea eta pertsonarentzat inguru desberdinetan moldatzeko baliagarriak izatea lortu nahi da. Hemen sartzen diren trebetasun-motak ondokoak dira: hizkuntza, idazketa, irakurketa, oinarritzko matematika-kontzeptuen erabilera praktikoa, inguru fisikoaren eta gizarte-inguruaren ezagutza, etab.; eta hauekin batera sartzen da ezagutza akademiko horiek guztiak gizaratean, dendetan, aisialdi-zerbitzuetan, lanean, etab. erabiltzea.

Helburuak

- Oinarritzko gaitasun kognitiboak garatzea: sailkapena, seriazioa, barne-hartzea...
- Eguneroko bizitzan erabiltzeko oinarritzko kontzeptuak eta prozedura logikoak ikastea
- Mezuak komunikatzeko kode grafiko edo idatzien ulermena eta erabilera garatzea
- Identifikazioa eta ordezkapena garatzea hizkuntza desberdinak erabiliz: matematikoa, hitzezkoa, zenbakizkoa...
- Pertsonaren eremu desberdinetan trebetasun akademiko funtzionalak aplikatzea

Ikasteko edukiak

- *Nortasun-ezaugarriak ezagutzea: izena, adina, helbidea, familiako osagaiak.*
- *Prozesu kognitiboen parte-hartzea inplikatzan duten oinarritzko teknikak ikastea: sailkatzea, konparatzea, egiaztatzea, ordenatzea, zenbatzea, etab.*
- *Objektuak beren ezaugarrien eta eguneroko bizitzan duten erabileraren arabera sailkatzea: garbitzeko, jantziak, jolasteko, elikagaiak, lantegiko erremintak, etab.*
- *Objektuak, formak etab. identifikatzeko, ezagutzeko, konparatzeko eta aukeratzeko estrategiak ikastea*
- *Espazioari dagozkion oinarritzko kontzeptuak ikastea: objektuak alde batean edo bestean kokatzea, urruti eta hurbil nahiz barruan eta kanpoan bereiztea, helbideak etab. ezagutzea.*
- *Denborari dagozkion oinarritzko kontzeptuak ikastea: astegunak, jaiegunak, urtaroak etab. ezagutzea.*
- *Egutegia ezagutu eta erabiltzea: eguneroko jardunari dagozkion jarduera, asteak, hilekoak, asteburua noiz den jakitea, jaieguna noiz den, egun zehatz bat kokatzea, etab.*
- *Ordularia ezagutu eta erabiltzea: ordu osoa, ordu-erdia, laurdenak, minutu-orratza etab.*
- *Kopuruari buruzko oinarritzko kontzeptuak ikastea: objektu guztiak bereiztea baten, askoren edo gutxiaren artean; handia, txikia, berdina kontzeptuak bereiztea objektuei buruz; objektuak mekanikoki zenbatzea 10, 15... arte*
- *Zenbakiak ezagutzea eta aplikatzea: zenbatzea, zifra bateko edo gehiagoko zenbakiak irakurtzea eta idaztea, handiena eta txikiena bereiztea etab.*
- *Neurtzeko tresnak erabiltzeko zenbakiak eta zifrak aplikatzea: pisuak, balantza, metroa...*
- *Kalkulatzeko eragiketa errazak egitea: neurtzeko eskalak, baskulako zentimetroaren marrak interpretatzea, 2 digituko edo gehiagoko batuketak eta kenketak egitea, biderketa eta zatiketa errazak egitea, erdia eta bikoitza kalkulatzeko etab.*
- *Irakurtzen eta idazten hasteko kode grafikoak edo idatziak ikastea*
- *Adierazpen grafikoko trebetasunak ikastea: lerroaren norabidea, grafismo ez figuratiboa, grafismo figuratiboa, etab.*
- *Adierazpen grafikoko oinarritzko teknikak ikastea: marrazketa, pintura, modelatua, etab.*
- *Adierazteko eta komunikatzeko baliabide gisa irudiak eta sinboloak ezagutzea eta erabiltzea*
- *Sinboloak, argazkiak eta piktogramak eguneroko objektu eta egoerekin lotzea*
- *Objektu, pertsona, ekintza eta sekuentziei buruzko irudiak identifikatzea eta erabiltzea*
- *Kartel eta errotulu idatzi arruntak ulertzea: kafetegia, irteera, autobusa, etab.*
- *Adierazpen-baliabide gisa, piktogramak, hitzak edo esaldiak egitea*
- *Piktogramak edo sinbolo errazak aplikatu eta erabiltzea mezu errazak transmititzeko*
- *Eguneroko ingurunean idatzitako hitz esanguratsuak eta funtzionalak identifikatzea*
- *Zerrendak, mezu laburrak, etab. interpretatzeko hitzak irakurtzea*
- *Aldizkaria erabiltzea bertako arloak identifikatuz: kirolak, iragarkiak, zineak, etab.*
- *Adierazpen-baliabide gisa liburuak, marrazkiak, ipuinak komikiak, etab. erabiltzea.*
- *Gertakari baten kontaketa, mezu bati edo ipuin bati arreta eskaini eta ulertzea.*

Trebetasun akademiko funtzionalak egokitzapen-trebetasunei dagozkien beste arlo batzuetan aplikatzea.

1. Trebetasun akademiko funtzionalak komunikazioan aplikatzea

- *Sinatzea*
- *Bere izena eta helbidea ezagutzea*
- *Bere izena eta helbidea idaztea*
- *Inprimaki bat bere datu pertsonalekin betetzea*
- *Enkargu bat edo mezu bat marrazkien, sinboloen edo hitz idatzien bidez idaztea.*
- *Irudiak, sinboloak eta hitz idatziak ezagutu eta adierazpenerako eta komunikaziorako baliabide gisa erabiltzea.*
- *Bestelako batzuk*

2. Trebetasun akademiko funtzionalak etxeko bizitzan aplikatzea

- *Iratzargailua ezagutu eta erabiltzea, ordu egokia jartzea, alarma dagokion orduan jartzea, geratzea, etab.*
- *Kantitateak pisatzea, Kiloa, kilo-erdia, gramoak, etab.*
- *Metroarekin, zentimetroarekin eta ohikoak ez diren neurketa-unitateekin neurtzea: oihal bat, gela bat, papera, etab.*
- *Mahaikideen arabera, plateren, mahai-tresnen eta abarren kopurua zenbatzea.*
- *Janaria banatzea mahaikideen arabera, etab.*
- *Erosketarako zerrendak egitea*
- *Errezeta erraz bat egiteko elikagaien neurri egokiak aukeratzea.*
- *Bestelako batzuk*

3. Trebetasun akademiko funtzionalak gizartean aplikatzea

- *Erosketak egitea zerrenda bat erabiliz*
- *Erosketetan behar hainbat diru ematea, kanbioa jaso arte itxarotea, etab.*
- *Bi erosketen edo gehiagoren zenbatekoa batzea*
- *Autobusaren zenbakia identifikatzea.*
- *Ordua ezagutzea*
- *Ezkaratz baten, pisu baten, kale baten eta abarren zenbakia aurkitzea.*
- *Zenbakien ezagutza aplikatzea telefonoa, kalkulagailua, ordenagailua, etab. erabiltzean (laguntzarekin edo laguntzarik gabe)*
- *Erabilera arrunteko zeinuak eta marrazkiak ezagutzea: WC, gizonetzkoaren eta emakumetzkoaren marrazkiak, arrisku-seinalea, autobusa edo metroa adierazten duen seinalea, etab.*
- *Bestelako batzuk*

4. Trebetasun akademiko funtzionalak osasunean eta segurtasunean aplikatzea

- *Arriskua, debekua, etab. adierazten dituzten seinale grafikoak eta errotulukoak bereiztea.*
- *Izena, helbidea eta datu pertsonalak ezagutu eta idaztea*
- *Termometroak, labeak, etab. adierazten dituzten temperatura-gradoak behar bezala interpretatzea*
- *Norberaren telefono-zenbakia eta larrialdi-zerbitzuetako telefono-zenbakia ezagutzea.*
- *Pisua kontrolatzeko gorputz-balantza erabiltzea.*
- *Bestelako batzuk*

5. Trebetasun akademiko funtzionalak aisialdian aplikatzea

- *Mahai-jokoetako zenbakiak eta hitzak ezagutzea*
- *Liburu, aldizkari eta egunkariak erabiltzea, argazki eta marrazki interesgarriak aurkituz.*
- *Aisialdi-zerbitzuen errotuloak, piktogramak edo marrazkiak identifikatzea: polikiroldegiak, zinemak, parkeak, etab.*
- *Interesatzen zaizkion filmak identifikatzea*
- *Aisialdi-jardueretan dirua erabiltzea*
- *Bestelako batzuk*

6 Trebetasun akademiko funtzionalak lanean aplikatzea

- *Lantegiko objektuak erabilera, forma, tamaina eta abarren arabera sailkatzea.*
- *Forma geometrikoak eta ez geometrikoak konparatu, bereizi, erlazionatu eta sailkatzea*
- *Tamaina egokiaren arabera piezak aukeratzea*
- *Neurriak batzeko kalkulagailua erabiltzea*
- *Luzerak neurtzea*
- *Errotuloak identifikatzea*
- *Zeregin bat burutzean eskema bat edo marrazki-sekuentzia bat interpretatzea*
- *Bestelako batzuk*

9. Aisialdia

Arlo honen helburua da aisialdia gozatzea ahalbidetuko duten interes pertsonal desberdinak garatzea. Garrantzitsua izango da lehenetsun pertsonalak adierazteko, aukeratzeko, lehenetsunak eta premiak komunikatzeko eta abarrerako trebetasunak garatzea eta aisialdi-egoeretan aplikatzea, etxean nahiz kanpoan, bakarka edo beste batzuekin. Beraz, arlo honek barne hartzen ditu taldean portatzeko jarraibideak, arauak eta txandak errespetatzea, beste batzuekin harremanak izanez jolastea, mugimenduzko trebetasunak erakustea, lehenetsunak adieraztea, aisialdirako tokietan behar den bezala portatzea, etab.

Helburuak

- Aisialdian inplikaturako mugimenduari dagozkion trebetasunak eta trebetasun kognitiboak garatzea
- Aisialdiaz gozatzeko interesak eta zaletasunak garatzea
- Gizarteko testuinguru desberdinetan ekimenez eta autonomiaz mugitzen ikastea: zinean, kafetegian, kiroldegian...
- Portaera gizarteko arau eta balioetara egokitzea
- Gizarteko egoera arruntetan eta kultur jardueretan parte hartzea

Ikasteko edukiak

- *Elkarreraginezko jarraibideak ikastea aisialdiko eremuak besteekin batera erabiltzeko: txandak errespetatzea, itzarotea, etab.*
- *Jolaserako jarraibide ahalik eta normalizatuena garatzea: txanda hartzea, itzarotea, etab.*
- *Interesatzen zaion jolasa edo jarduera aukeratzeko komunikazioko estrategiak aplikatzea*
- *Aisialdiko zein ekintza, nola, etab. egin nahi duen besteei adierazteko estrategiak aplikatzea*
- *Material plastikoen azterketa eta erabilera: buztina, plastilina, tenperak, etab.*
- *Bere aisialdietan eta gozatzeko uneetan musika erabiltzea.*
- *Atsegin dituen musika-bildumak, Cd-ak edo zintak biltzea.*
- *Telebista, irratia, musika-kaseta, etab. erabiltzeko ohiturak hartzea.*
- *Musika-tresna errazak erabiltzen ikastea*
- *Musika-adierazpeneko jolas eta taldeetan parte hartzea.*
- *Talde-jokoetan parte hartzea eremu irekietan: aroak, baloia, etab.*
- *Talde-jokoetan parte hartzea eremu itxietan: aulkiekin egiteko jolasak, simulaziozkoak, etab.*
- *Mahaiko jolasetan parte hartzea: antzara-jokoa, dama-jokoa, kartak, partxisa...*
- *Ekintzen dramatizazioetan etab. parte hartzea: animalienak, ibilaldi bat egitea, erosketak egitea, etab.*
- *Atsegin dituen kirol jarduerak egitea*
- *Uraz gozatzeko teknikak ikastea: igeri egitea, etab.*
- *Aisialdi-inguruneetan autonomiaz moldatzeko trebetasunak garatzea.*
- *Aisialdiko eremuak erabiltzeko eta horiez gozatzeko trebetasunak ikastea: zinea, kafetegia, jatetxea, mendian ibiltzea, etab.*
- *Interesatzen zaion film bat, menu bat, edari bat, etab. aukeratzeko komunikazioko estrategiak garatzea*
- *Aisialdirako hurbileko habitat naturala funtzionalki ezagutzea eta*
- *Ikastetxetik gertu dauden aisialdiko eremuak behar bezala erabiltzea: parkea, lorategia, etab.*
- *Parke eta lorategietan jolasteko eta kirola egiteko elementuak erabiltzea*
- *Inguru naturalez gozatzea eta horiek erabiltzea paseoen, ibilbideen, erosketen etab. bidez*
- *Ingurugiroko aldaketa klimatiko eta fisikoen pertzepzioa: eguzkia, euria, haizea...*
- *Klima eta kirol jarduerak eta horiek egiteko jantzi egokiak lotzea: euria egiten duenerako, elurretarako, eguzkitarako, mendirako, etab.*
- *Landareak zainduz gozatzeko jarrerak hartzea: ureztatzea, inaustea, ongarrria botatzea, etab.*
- *Inguruko animalien eta landareen izenak ezagutzea*
- *Konpainiako animalia bat zainduz gozatzeko jarrerak hartzea*
- *Komunikabideak gozatzeko erabiltzea: telebista, egunkaria, aldizkariak, irratia...*
- *Irudiak, ipuinak, komikiak... erabiltzea ondo pasatzeko*
- *Gogoko dituen zaletasunen garapena sustatzea: zigiluak, kutxak, monetak, etab.*

10. Lana

Arlo hau gizartean lan bat nahiz laneko edo lanean hasi aurreko zeregin bat garatzeko behar diren trebetasunei dagokie. Trebetasun asko barne hartzen ditu, batzuk lanbide bakoitzari dagozkion berezko trebetasun espezifikoekin erlazionatuak (lixatzea, neurtzea, itsastea, ahokatzea, etab.); beste batzuk lanarekin berarekin eta jokabide sozial egokiarekin erlazionatuak (zeregina amaitzea, ordutegiak eta txandak errespetatzea, lanera joan eta etorri autonomiaz egitea, lan-eremuan nork bere burua kontrolatzea, trebetasun akademiko funtzionalak aplikatzea, etab.)

Helburuak

- Bizimodu heldura igarotzea ahalbidetuko duten ohiturak eta trebetasunak garatzea
- Lanean hasi aurretik erremintak eta materialak erabiltzen ikasteko oinarrizko trebetasunak garatzea
- Laneko edo lanean hasi aurreko oinarrizko trebetasun komunak ikastea
- Zeregin errazak egiteko eta horien plangintza egiteko jarraibideak ulertzeko gaitasunak garatzea
- Laneko edo lanean hasi aurreko jardueretan parte hartzeko jokabidezko ereduak ikastea

Ikasteko edukiak

- Zeregin desberdinak egiteko oinarrizko erremintak identifikatzea eta erabiltzea
- Oinarrizko erremintak ezagutzea eta identifikatzea izenaren, argazkiaren edo marrazkiaren bidez
- Erreminta desberdinak behar bezala maneiatzeko teknikak ikastea
- Erreminten elementuak edo piezak aldatzeko, ordeztzeko etab. teknikak ikastea.
- Tresna mekaniko edo elektriko errazak martxan jartzeko teknikak ikastea
- Oinarrizko erremintak modu egokian maneiatzea: puntzoia, grapagailua, mailua, guraizeak, zerra, bihurkina, aliketak, etab.
- Lan edo zeregin baten exekuzioan inplikaturako ohitura pertsonalak ikastea
- Materialak eta lantokia antolatzeko eta zaintzeko ohiturak ikastea
- Lan-ordutegiak, lan-egutegiak eta lantokiak ezagutzea
- Puntueltasuna, ordena, arretako ohiturak ikastea zereginen exekuzioan
- Material plastikoaren azterketa eta erabilera: buztina, plastilina, tenperak
- Zereginak amaitzeko ohiturak hartzea
- Lanean hasi aurreko, eskuzko edo lanerako oinarrizko teknikak ikastea
- Lanean hasi aurreko jarduera desberdinen oinarrizko teknikak ikastea: ebakitzea, tolestea, batzea, itsastea, nahastea, lixatzea, arrabotaz leuntzea, argizaria ematea, bernizatzea, zulatzea, leuntzea, kolpatzea, karraskatzea...
- Prozesu kognitiboen parte-hartzea inplikatzeko duten oinarrizko teknikak ikastea: sailkatzea, konparatzea, ordenatzea, zenbatzea, pisatzea...
- Materialak eta erremintak ezaugarrien, erabileraren, arrisku-mailaren... arabera sailkatzea
- Oinarrizko zeregin errazak egitea
- Arreta eta kontzentrazioko ohiturak ikastea zereginen exekuzioan
- Zeregin bat egiteko jarraibide partzialei jarraitzea
- Zeregin bat egiteko material edo objektu bat erabiltzeko jarraibideak kontuan izatea
- Oinarrizko zeregina egiteko erreminta egokia aukeratzea
- Pieza desberdinak konbinatuz objektuak muntatu eta desmuntatzeko teknikak ikastea (beste norbaiten ardurapean edo bakarrik)
- Pieza desberdinak bereiziz objektuak desmuntatzeko teknikak ikastea
- Zeregin erraz bat garatzeko urratsen plangintza egitea
- Lanean erabiltzeko trebetasun sozialak ikastea
- Tutorearen edo zereginaren arduradunaren jarraibideak errespetatzea
- Lan-egoera desberdinetan komunikazio funtzionala erabiltzea: amaitu dut, behar dut, falta da, etab.
- Argazkien, marrazkien edo testu idatziaren bidez jarraibide errazak interpretatzea
- Zereginak beste pertsona batzuekin batera egiteko trebetasunak ikastea
- Lanean hasi aurreko jardueretan trebetasun akademiko funtzionalak aplikatzea
- Erreminten erabileran horiek zaintzeko ohiturak ikastea

Ikasle bakoitzak egiten dituen aurrerapenak jarraitzeko ikasgelaren programazioan edo Lan Egitasmo Indibidualean aplikatzeko ebaluazio-irizpide batzuk ezartzea komeni da. Horretarako, proposamen gisa egokitzapen-trebetasun bakoitzari dagozkion ebaluazio-irizpideen adibide bat erantsi dugu; irizpide hauek bat datoz ikasgela egonkorrerako proposatutako aurreko curriculumean aurkeztutako edukiekin. Curriculum-proposamen horretan, ikasteko edukiaz gain, beste irizpide batzuk adierazten dira, besteak beste, ikasleak behar duen laguntza, trebetasuna edo ikaskuntza funtzionalki erabiltzen duen ala ez, beste testuinguru batzuetara orokortzen duen ala ez, etab.

Proposamena: Ebaluazio-irizpideak

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p style="text-align: center;">1. KOMUNIKAZIOA</p> <p>1. Komunikaziozko jokabideen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Komunikatzeko keinuak erabiltzen ditu - Pertsona esanguratsuei begiratzen die - Ekintzak imitatzen ditu - Objektuak seinalatzen ditu - Objektuak erakusten ditu - - <p>2. Komunikazioko baliabide gehiago eta/edo alternatiboen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irudiak eta objektuak lotzen ditu - Irudiak eta ekintza esanguratsuak lotzen ditu - Argazkiak eta objektuak lotzen ditu - Komunikatzeko keinuak edo argazkiak erabiltzen ditu - Eskatzeko piktogramak eta argazkiak erabiltzen ditu - - <p>3. Inguruko informazioaren ulermena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Keinuak ulertzen eta identifikatzen ditu - Besteen aurpegierak eta gogo-aldarteak identifikatzen ditu - Irudiak ulertzen eta identifikatzen ditu - Ikusizko seinaleak eta argazkiak ulertzen ditu - Marrazkien bidez emandako mezuak ulertzen ditu - - <p>4. Hizkuntza adierazkor eta funtzionala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko beharrak adierazten ditu - BAI esaten du keinuen edo hitzen bidez eta modu funtzionalean - EZ modu funtzionalean erabiltzen du - Gogo-aldarteak adierazten ditu 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>- Informazioa eskatzen du</p> <p>-</p> <p>-</p> <p style="text-align: center;">2. NORK BERE BURUA ZAINTZA</p> <p>1. Bere buruaren nozioa eta gorputzaren irudia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Taldeko argazkietan bere burua ezagutzen du - Bere sexua, altuera eta ile-kolorea ezagutzen ditu - Bere izena eta adina ezagutzen ditu - Bere etxea non dagoen badaki - Bere objektu pertsonalak identifikatzen ditu - - <p>2. Higiene pertsonaleko ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bakarrik orrazten da - Hortzak garbitzen ditu - Burua garbitzen laguntzen du - Bera bakarrik duxatzen da - Toaila erabiltzen du - Bizarra kentzeko makina erabiltzen du - - <p>3. Elikadura-ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aho-zapia, labana eta beste tresna batzuk modu funtzionalean erabiltzen du - Txarroa, azpila eta edalontzia modu egokian erabiltzen ditu - Jan ditzakeen eta jan ezin ditzakeen elikagaiak ezagutzen ditu - - <p>4. Bere burua zaintzeko ohiturak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sentsazio atseginak eta desatseginak identifikatzen ditu eta egoera batekin lotzen ditu - Hotza, nekea, logura... adierazten ditu <p>5. Espazioarekin eta denborarekin lotutako bizipenak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lo egiteko ordua ezagutzen du - Eskolara joateko eta etxera itzultzeko ordua ezagutzen du - Eguneroko jarduerak egiten ditu - Asteko jarduerak ezagutzen ditu 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>- Gorputzeko minak identifikatzen ditu: burukoa, hagineta, urdailekoa, hilekoarena...</p> <p>- Komuna autonomiaz erabiltzen du</p> <p>- Komunean norbait dagoen badaki...</p> <p>-</p> <p>5. Espazioarekin eta denborarekin lotutako bizipenak</p> <p>- Lo egiteko ordua ezagutzen du</p> <p>- Eskolara joateko eta etxera itzultzeko ordua ezagutzen du</p> <p>- Eguneroko jarduerak egiten ditu</p> <p>- Asteko jarduerak ezagutzen ditu</p> <p>-</p> <p>-</p> <p style="text-align: center;">3. ETXEKO BIZITZA</p> <p>1. Etxeko eremu desberdinak kokatzea</p> <p>- Elikatzeko tokiak eta uneak bereizten ditu</p> <p>- Atsedean hartzeko eta lo egiteko tokiak bereizten ditu</p> <p>- Jolasteko edo aisialdirako tokiak eta uneak bereizten ditu</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>2. Elikadura eta elikagaien prestakuntza</p> <p>- Elikagaiak zerbitzatzen ditu</p> <p>- Azpila erabiltzen du</p> <p>- Mahaia jarri eta kendu egiten du</p> <p>- Ogitarteko bat prestatzen du</p> <p>- Cola-cajo bat prestatzen du</p> <p>- Fruta zuritzen du</p> <p>- Pisua erabiltzen du elikagaiak pisatzeko</p> <p>-</p> <p>-</p> <p>3. Tresneriaren garbitasuna eta zainketa</p> <p>- Platerak garbitzen eta lehortzen ditu</p> <p>- Arropa zintzilik jartzen du eta pintzak erabiltzen ditu</p> <p>- Aspiradora erabiltzen du</p> <p>- Garbitzeko produktu arruntak erabiltzen ditu</p> <p>- Zaborrak eta hondakinak sailkatzen ditu</p> <p>- Zabor-ontzia erabiltzen du</p> <p>- Arropa tolestean du</p> <p>-</p> <p>-</p>							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>4. Etxeko tresnen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garbigailua erabiltzen du - Mikrouhin-labea erabiltzen du - Ile-lehorgailua erabiltzen du - Irratia eta telebista martxan jartzen ditu - Iratzargailua erabiltzen du - Kasetea martxan jartzen du - - <p>5. Etxeko arazoaren ebazpena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Telefonoa hartzen du - Badaki zeinengatik galdetzen duten - Telefonoa erabiltzen du senide bati deitzeko - Etxeko landareak ureztatzen ditu - Animalien janaria prestatzen du - - <p>4. GIZARTE-TREBETASUNAK</p> <p>1. Gizarteko ekintza arruntak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Begirada erabiltzen du - Ukipen fisikoa onartzen du - Kaixo esaten du - Agur esaten du - Urtebetetzean zoriontzen du - - <p>2. Gizarte-trukerako trebetasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Keinu edo hitzen bidez deitzen du - Eskerrak ematen ditu - Beste batzuekin elkarreragina mantentzen du - Bere izena, adina, helbidea... adierazten ditu - Telefonoz deitzen du - Sendagileari (dentistari) egin beharreko bisita imitatzen du... - - <p>3. Emozioen mundua</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gogo-aldarteak identifikatzen ditu - Haserrea, tristura, poza... adierazten ditu - Aurpegierak eta gogo-aldarteak identifikatzen ditu: barrea, pena, poza... - - 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>4. Taldean izan beharreko jokabidearen garapena</p> <ul style="list-style-type: none"> - Solasaldian txandak errespetatzen ditu - Jarduera batean txanda itxaroten du - Beste bati galdetzen dio - Txantxetan noiz ari diren badaki - Gezurretan noiz ari diren badaki - - <p>5. Norberaren jokabidea arautzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolastokiko arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu - Jangelako arauak ezagutzen ditu - Lantegiko eta ikasgelako arauak ezagutzen eta errespetatzen ditu - Dama-jokoaren arauak ezagutzen ditu - Jardueren artean itxaroten badaki - - <p>5. KOMUNITATEAREN ERABILERA</p> <p>1. Autonomia testuinguru hurbiletan</p> <ul style="list-style-type: none"> - Elikatzeko eta higieneko jardueren unea eta tokia bereizten ditu - Gela bakoitzeko materialen kokapena eta erabilera ezagutzen du - Inguru hurbilean mugitzen badaki - Metroaren eta autobusaren sinboloak ezagutzen ditu - Komuna, irteera etab. adierazten dituzten sinboloak ezagutzen ditu - Mezu bat eraman dezake - - <p>2. Garraio eta komunikabideen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Autobusa edo metroa erabiltzen du - Bere telefono-zenbakia markatzen badaki - Telefonoari erantzuten dio - Zeinengatik galdetzen duten eta enkargu bat ematen badaki - Gutun bat botatzen badaki - - <p>3. Gizarteko zerbitzuen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Liburutegira joaten da liburu bat begiratzera 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<ul style="list-style-type: none"> - Okindegia eta supermerkatua identifikatzen ditu - Osasun-zentroa eta farmazia identifikatzen ditu - Supermerkatuan eta kioskoan erosketak egiten ditu - Semaforoa eta zebrabidea erabiltzen ditu - - <p>4. Gizarteko ekintzetan parte hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Paseoak ematen ditu beste pertsona batzuekin - Auzoko festetan parte hartzen du - Gabonetako eta Inauterietako festetan parte hartzen du - Santa Ageda eta Olentzarotan parte hartzen du - - <p style="text-align: center;">6. NORK BERE BURUA ARAUTZEA</p> <p>1. Jokabidearen kontrola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Atsegin dituen eta atsegin ez dituen gauzak adierazten ditu - Bere zaletasunak aukeratzen eta adierazten ditu - Ikasgelako, aisialdiko, telebista ikusteko... ordutegiak onartzen ditu - Atsegin ez duen zerbait baztertzen du - Aurreikusitako jardueran aldaketak onartzen ditu - - <p>2. Mugimenduaren eta emozioen kontrola</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bere buruan oinarrizko sentimenduak eta emozioak identifikatzen ditu - Besteengan haserrea, beldurra, poza... identifikatzen ditu - Beldurra, haserrea eta poza eta horiek eragiten dituzten egoerak lotzen ditu - Ikastetxeko jarduera desberdinetan parte hartzen du eta txanda itxaroten du - - 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>3. Ekintzaren plangintza</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eguneko jarduera aurreratzen du egutegian oinarrituz - Txirrinaren eta musikaren (jarduera bat amaitzea) esanahiak ezagutzen ditu - Egin nahi duena adierazteko marrazki egokiak aukeratzen ditu - Zerbait behar duenean pertsona egokiari eskatzen dio - - <p>4. Gizarteko trukerako trebetasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Besteei galdetzen die - Txartelen bidez informazioa eskatzen du - Zeregin bat egiteko laguntza eskatzen du - Ezetz esaten du, atsegin ez duenean baztertu egiten du - Lehentasuna agertzen du - Zorionak ematen badaki - Atsegin duen postrea aukeratzen du - - <p>7. OSASUNA ETA SEGURTASUNA</p> <p>1. Osasun pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekea identifikatzen du - Sukarra noiz duen badaki - Mina non duen esaten badaki - Mina eta gorputza lotzen ditu: hagnetako mina, urdaileko mina, hilekoa - Sendagaiak hartzen ditu (norbaiten laguntzarekin) - Zauri bat garbitzen badaki - - <p>2. Segurtasuna eta bere burua babestea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ile-lehorgailua erabiltzen du - Sukaldea eta mikrouhin-labea erabiltzen ditu - Berogailua ondo itzaltzen du - Entxufe elektrikoak erabiltzen badaki - Giltzak ez dituenean norengana jo badaki - - 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>3. Komunikazioko eta gizarteko trebetasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikaskide bat zaurituta edo gaixorik dagoenean helduari horren berri ematen dio - Larrialdietan laguntza eskaintzen du - Besteei laguntzen, sendatzen... uzten die - Jokoetan simulazioak egiten ditu: ezetz esatea, laguntza eskatzea - Simulaziozko jokoetan abusu pertsonaleko egoerak identifikatzen ditu - - <p style="text-align: center;">8. TREBETASUN AKADEMIKOAK</p> <p>1. Oinarrizko gaitasun kognitiboak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Objektuak formaren arabera sailkatzen ditu - Antzekotasunak eta desberdintasunak egiaztatzen ditu - Neurrien arabera ordenatzen du - Oinarrizko formak ezagutzen ditu - Formen arabera, objektuak aukeratzen ditu - Barruan eta kanpoan bereizten du - Astegunak ezagutzen ditu - - <p>2. Kode idatzien erabilera (konbentzionalak nahiz ez)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Adierazpen grafiko ez figuratiboa egiten du - Formak eta marrazkiak imitatzen ditu - Piktograma bat marrazten du - Eskatzeko irudiak eta sinboloak erabiltzen ditu - Argazki edo piktograma bat eguneroko objektu eta egoerekin lotzen du - Hitz edo esaldi sinpleak ezagutzen ditu - Kafetegiko, irteerako etab. erroteruak interpretatzen ditu - Erosketa-zerrenda interpretatzen du - - <p>3. Matematikako oinarrizko kontzeptuak eguneroko bizitzan aplikatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bat, asko, gutxi... bereizten ditu 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<ul style="list-style-type: none"> - Handia, txikia... bereizten ditu - 10-15 objektu zenbatzen ditu - Zenbakiak irakurri eta idazten ditu - Zenbaki handiagoa eta txikiagoa ezagutzen du - Batuketak eta kenketak egiten ditu - Erdia, bikoitza, etab. kalkulatzeko du - - <p>4. Trebetasun akademikoaren aplikazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Inprimakiak sinatzen ditu - Bere izena ezagutzen eta idazten du - Inprimaki erraza betetzen du - Erosketa-zerrenda idazten du - Enkargu erraz bat idazten du - Kantitateak pisatzen ditu - Tresna-kopurura zenbatzen du - - <p style="text-align: center;">9. AISIALDIA</p> <p>1. Komunikazioko eta gizarteko trebetasunak eta aisialdia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jolasetan bere txanda errespetatzen du - Gehien atsegin duen jolasa aukeratzen du - Baloiarekin jolastean taldean parte hartzen du - Antzara-jokoa eskatzen badaki - Partxisean ibiltzen badaki - - <p>2. Mugimenduaren garapena eta aisialdia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Margotzeko tenperak erabiltzen ditu - Telebista, irratia etab. erabiltzen ditu - Igerilekua erabiltzen du - Bizikleta erabiltzen du - Patinatzen badaki - - <p>3. Aisialdia eta natur ingurunea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Animalien izena ezagutzen du - Inguruko zuhaitz eta landareen izenak ezagutzen ditu - Parkean eta lorategian paseatzen du - Bizikletan bide egokitik ibiltzen da - Mendira joateko jantzi egokiak aukeratzen ditu - - 							

Edukia	Bai	Ez	Partzialki	Laguntzak	Erabilera funtzionala	Orokortzea	Bestelakoak
<p>4. Interesak, zaletasunak eta aisialdia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egunkariarekin entretenitzen da - Irratia entzuten du - Irudiak dituzten liburuekin entretenitzen da - Landareak zaintzea atsegin du - Kafetegira, zinera, etab. joaten da - CDa edo musika-zintak erabiltzen ditu - - <p style="text-align: center;">10. LANA</p> <p>1. Erreminten eta materialen erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarrizko erreminten izena, argazkia edo marrazkia ezagutzen ditu - Grapagailua erabiltzen eta berritzen du - Mailua eta bihurkina erabiltzen ditu - Grapagailua konpontzen du - Fotokopiagailuan papera berritzen du - Fotokopiagailua martxan jartzen du - Erremintak eta materialak jasotzen ditu - - <p>2. Zereginak egiteko trebetasunak eta teknikak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Papera eta oihala ebakitzen, tolesten... badaki - Materialak lotzen eta itsasten ditu - Zura lixatzen eta leuntzen badaki - Berniza ematen badaki - Piezak sailkatzen, ordenatzen eta zenbatzen ditu - Oihalak josten ditu - Alfonbretarako puntua egiten badaki - - <p>3. Gizarte-jokabidea eta kontrol pertsonala</p> <ul style="list-style-type: none"> - Materialak eta lantokia antolatzen eta zaintzen du - Lantegi-gelako ordutegia ezagutzen du - Egutegia interpretatzen du - Garaiz iristen da - Zereginak amaitzen ditu - Beste batzuen laguntzarekin lan egiten du - Amaitu duela esaten badaki - - 							

<p>4. Zereginen plangintza eta exekuzioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Argazkien, marrazkien edo letra idatzien jarraibideak interpretatzen ditu - Zeregin bat egiteko ikusizko jarraibideak kontuan izaten ditu - Erreminta egokia aukeratzen du - Hainbat piezarekin objektuak muntatzen ditu - Piezak bananduz objektuak desmuntatzen ditu - - 						
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--	--	--	--	--	--

Ikasgela egonkorren funtzionamendua ikasleen hezkuntza-premiei koherentziaz erantzuteko garatu behar den metodologia-motak baldintzatzen du. Gure ustez ikasgelak ondoko printzipio metodologikoetan oinarrituz funtzionatu behar du.

- ◆ Giro oso egituratua
- ◆ Lagundutako komunikazio-sistemak erabiltzea
- ◆ Helduaren bitartekotza
- ◆ Testuinguru esanguratsuetako irakaskuntza

◆ *Giro oso egituratua*

GNO duten ikasleengan testuinguruaren eta gizarte-egoeren ulermena areagotzeko ezinbesteko estrategia da ikasgelako eta ikastetxeko ingurunean nahiz beste ingurune batzuetan giroa egituratzea.

Ikasle hauek hobeto moldatzen dira egituraketa-maila handi bat duten testuinguru fisiko eta sozialetan. Estimulaziorako seinale eta gako desberdinez, batez ere entzumenari, ikusmenari edo ukimenari dagozkienez, ari gara, hauen bitartez ikasleek autonomiaz moldatzeko arauak atera baititzakete.

Ahozko hizkuntzarik eta komunikazio- eta gizarte-estrategiarik ezean, ikusmen-gakoek alde zuzenetik eman dezakete gertatuko denari buruzko informazioa eta era berean jada gertatutako gertakari eta ekintzei buruz informatzen dute. Ulermenari laguntzeko gakoak aukeratu eta egiteko orduan hauek zehatzak, erraz antzematekoak, elementu gutxirekin osatuak eta behar bezain iraunkorrak izatea komeni da, ikasleen portaera eta jardura arautu ahal izan dezaten.

Ikasgelako eta ikastetxeko hezkuntza-ingurunearen antolamendua bertako elementu guztiei dagokie, materialei, espazio fisikoari, objektuei bai eta hezkuntza-prozesuan esku hartzen duten pertsoneri ere. Ingurunea egituratzea gomendatzen da, gutxienez, bi dimentsiotan:

- espazioa
- denbora

Espazioaren egituraketa:

Piktogramak eta seinaleztapen-gakoak erabil daitezke ikastetxeko espazio desberdinak bereizteko, alegia ikasgelak, bulegoak, bainugelak, jantokia etab. bereizteko.

Eraikinak dituen solairu edo sail desberdinen markatzaileak erabil daitezke gela desberdinetara –ikasgela, jantokia, etab.- joateko ibilbidea seinalatzen duten koloretako zerrenden bidez.

Gela edo zona bakoitzari dagozkion eta burutu beharreko zereginekin loturik dauden tresnen edo materialen argazkiak eta marrazkiak ere erabil daitezke.

Denboraren egituraketa

Piktogramak, argazkiak, marrazkiak, etab. bezalako estimulu iraunkorrek erabiltzea da helburua; hauek jarduera bakoitza, eguneroko jardunaren ordutegia, bertan izan daitezkeen aldaketak, etab. adierazten dituzte.

Zeregin baten sekuentziak, aurrekoa, ondorengoa, etab. adierazten dituzten ikusmen- edo entzumen-sinboloak eta gakoak erabil daitezke.

Burutu ahala estaliko diren ekintzen argazkiak.

Zereginen agendak edo liburuak zeregina osatzen duten sekuentzietako bakoitzaren argazkiekin.

Zeregin jakin bat noiz amaitzen den, etab. adierazten duten entzumen-seinaleak: adibidez, tinbreak, musika, etab.

◆ ***Komunikazio-sistema handigarrien edo lagundutako komunikazio-sistemen erabilera***

Autismoa eta burutiko atzerapena duten ikasleek komunikazioaren esparruan dituzten zailtasun handiak ezagunak izanik, koherentea da ikasgelaren helburu nagusi gisa komunikazio-trebetasunen eta gizarte-trebetasunen irakaskuntza eta hobekuntza planteatzea. Horretarako komunikazio-sistema alternatibo edo handigarri desberdinak erabili behar ditugu. Beharrezkoa izango da ikasgelako lan guztietan

zeharkako estrategia metodologiko orokor gisa lagundutako komunikazio-sistemen erabilera planteatzea, komunikazio-estrategiak eta gizarte-ulermeneko estrategiak ahalik eta gehien indartzeko.

Lagundutako sistemak dira sinbolo eta sistema adierazgarriak edo piktografikoak erabiltzen dituztenak, adibidez: objektu erreal berdinak edo antzekoak, miniaturak, marrazkiak, etiketak, argazkiak, euskarri fisiko desberdinetan idatzitako hitzak, taulak, komunikazio-agendak, ordenagailuak, etab.

Ikasle bakoitzaren premia indibidualen arabera, beste sistema alternatibo batzuk erabiliko dira, esate baterako SPC delakoa, Makaton, premia larrienak dituzten ikasleen kasuan Schaeffer programa, laguntza teknikoak, teklatuak, etab. Baina zalantzarik gabe, ikasle bakoitzarentzat aukeratzen dugun sistema kontuan hartu gabe, orokorrean eta ikasle guztiekin lagundutako sistemak erabili beharko ditugu, bereziki ikusmenean oinarritutako laguntzak eta gakoak, gerora izan daitezkeen portaera-arazoentzako eta egokitzapen pertsonal eta sozialeko arazoentzako prebentzio-modu gisa.

Beraz, premia horiek planifikatu behar dira, ikasle bakoitzak komunikazio-kodeak ikasteko behar izan ditzakeen arreta indibidual egituratuagoko espazioa eta denborak behar bezala antolatuz. Eta horrekin batera, lagundutako sistema hauek testuinguru naturaletan erabili behar dira ikasle guztiekin. Hau espazioaren, ordutegiaren, ikasle-taldearen eta abarren diseinuan islatuko da.

◆ *Testuinguru natural eta esanguratsuetako irakaskuntzak*

Autismoa eta burutiko atzerapena duten ikasleen zailtasunetako bat ikasten dutena orokortzea eta jarduera bat egoera batetik bestera aplikatzea da. Nabarmena denez, jarduerak normalean burutzen diren toki berberetan irakastea oso garrantzitsua da ikasleentzat eta, beraz, komenigarria da ikaskuntza batzuk kafetegia, supermerkatua, jatetxea, autobusa, kiroldegia, osasun-zerbitzua, zinea, etab. bezalako tokietan irakastea.

Adin honetako ikasleek ikastea behar dutena kontuan hartzen badugu, ikaskuntza planifikatzeko tradizionalki erabiltzen dugun espazioa neurri handi batean handitzen dela ondorioztatuko dugu. Ikasgela egonkorraren berezko espazioaz gain, ikastetxeko beste gela batzuk – sukaldea, jantokia, liburutegia, komunak, etab.- eta ikastetxekoak ez diren beste espazio batzuk – jantokia, kafetegia, autobusa, kiroldegia,

etab.- ere ikasteko eta irakasteko espazio pribilegiatuak dira. Horri gehitu behar diogu, gainera, curriculum funtzionaleko proposamenaren edukietako asko hobeto garatuko direla irakatsi nahi diren trebetasunak eta abileziak era naturalean garatzen diren inguruetan: elikadura jantokian, freskagarri bat eskatzea kafetegian, dirua erabiltzea supermerkatuan, etab. Ondorioz, ikasgelaren antolamenduak ikaskuntzaren zentzu ekologiko hau islatuko du hauek gertatzen direneko inguruetan jarduerak programatuz. Praktikan baliagarria izan daiteke proposamen mistoak konbinatzea, hau da, ikaskuntza batzuk ikasgelan irakastea eta beste batzuk ikasgelaz eta ikastetxeaz kanpoko inguruneetan garatu edo orokortzea, programazioan horrela islatuz.

Programazio-eredu honen adibide bat ondoko eranskinetan erakusten duguna da.

<i>ERANSKINAK</i>

- 4. Ikaskuntzarako ingurune baten programazioa. Kafetegira joatea.
- 5. Trebetasunen garapena programatzeko plantila

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuaren osagai gisa ulertzen da eta ikasle bakoitzaren lan-egitasmoa berrorientatzea ahalbidetzen duen neurrian du zentzua. Ez da une jakin batean bakarrik burutzen den ekintza puntuala, ebaluazioa burutzeko epe eta une jakin batzuk zehazten diren arren; aitzitik, ikasle bakoitzaren eta irakasteko eta ikasteko jardueraren behaketarekin loturik dago. Hau da, eduki jakin bat irakasteko unean behatzen dugu jarduera hori behar bezala egokituta dagoen, ikasleak hura burutzeko laguntzarik behar ote duen, trebetasuna garatua duen, etab.

Ikasgela egonkorreko ikasle bakoitzaren ebaluazio indibidualizatuak hasiera batean informazioa ematen digu Lan Egitasmo Indibiduala lantzeko eta, ondoren, programa egokitzeko eta laguntzak eta jarduerak beren ebaluazioaren arabera arautzeko.

Ebaluazioak batez ere ondokoak ezagutzeko balio digu:

- zein trebetasun dituen ikasita
- zein trebetasun ikasi behar dituen
- zein laguntza behar dituen, zein motatakoak eta zenbat denboraz
- ondoen zein baldintzetan ikasten duen

Gaitasunen maila ebaluatzeko orduan garrantzitsua da ikasle bakoitzak ikaskuntza berriak lortu ahal izateko beharrezkoak dituen laguntza osagarriak baloratzea. Ziurraski ikasgaiarekin topo egiten duten lehen aldian ez dute ikasiko eta ahalegin bat baino gehiago beharko dituzte; horregatik ahalegin bakoitzean laguntzak eman behar zaizkie esperientziak ahalik eta positiboan izan daitezen. Zereginera ahalik eta modu egokienean hurbiltzea eta jarrera positiboa hartzea da helburua.

Dokumentu honetan proposatzen dena bezalako curriculum funtzional bat aukeratzeak ebaluazioa burutzeko modua baldintzatzen du. Lehenik, ebaluazio-irizpideek ez dute derrigorrez ardatz gisa hartu behar eduki bat osorik ikastea, aitzitik, hauek egokitu egin behar dira eraginkorrago bilakatuz. Adibidez: autonomiaz jatea irizpide zabal bat da eta eraginkorragoak diren beste batzuk barne hartzen ditu: solidoak mastekatea, koilara erabiltzea, janaria zerbitzatea, denbora batez eserita egotea, etab. Bigarrenik, testuinguruaren eta ohiko jardueren analisiak garrantzi handia du gure zereginean, ingurunearen antolamenduak, testuinguruaren baldintzak eta hauek eragiten dituzten elkarreragin-motek ikaskuntza lortzea errazten edo zailtzen baitute.

Ebaluazio-irizpideak

Ikasle bakoitzaren lan-egitasmoan, ikasgelaren programazioan nahiz kafetegia, jantokia, kiroldegia, denda bat, etab. bezalako ingurune zehatz bateko ikaskuntzen programazioan, ebaluazio-irizpideak zehazteko orduan kontuan hartuko ditugu ondoko irizpideak:

- ***AURRERAPENAREN*** kontzeptua zentzu zabal batean, ikasleari berari loturik baloraturaz.
- edukia ***FUNTZIONALA*** izatea, bere osotasunean ikasita ez egon arren
- ***LAGUNTZEN*** premia; zein mota eta intentsitatekoak behar diren
- zeregin edo ikaskuntza zehatza burutzeko behar den denbora
- zeregina edo ikaskuntzaren edukia burutzerakoan duen ***AUTONOMIA-***maila
- ikasten diren edukiak modu espontaneoan edo eraginda ***TESTUINGURU DESBERDINETAN ERABILTZEA***
- ikaskuntza bat beste testuinguru edo jarduera batzuetara ***OROKORTZEA***

Dokumentu honen 7. atalean agertzen den ikasgela egonkorerrako curriculum-proposamenak barne hartzen du ikasleen jarraipena egiteko orduan erreferentzia gisa baliagarriak izan daitezkeen ebaluazio-irizpideen zerrenda bat; hauek egokitzapen-trebetasun desberdinei dagozkie. Azkenik, adierazi beharra dago ebaluazioa indibidualizatua dela eta Lan Egitasmo Indibidualean zehazten dela: Lan Egitasmo Indibidual honen eredu bat eskaintzen dugu 3. ***ERANSKINEAN***

Ikastetxearen Urteko Planak ikastetxean esku hartzen duten profesionalen aldetik erantzun koherente bat ziurtatzeko ezinbestekotzat hartzen diren koordinazio-ekintzak seinalatzen ditu eta hauen artean sartu behar lirateke ikasgela egonkorrari dagozkionak ere. Ikastetxe osoaren koordinazioari buruzko lerro orokor hauek dira zehatzagoak diren, ikasgela egonkorak zuzenean parte hartzen duen eta Ikasgelaren Curriculum Proiektuan islatzen diren beste haiek zehazteko esparrua.

Minusbaliotasun garrantzitsuak dituzten ikasleekin burutu beharreko hezkuntza-zereginak berarekin dakartza hainbat zailtasun irakasleentzat. eragozpen horiek gainditzeko modu bakarra beste profesional batzuekin koordinatuta egotea da; izan ere, koordinazio horrek ahalbidetuko du ikasleen arazo zehaztentzako irtenbidea bilatzea, arian-arian burutzen den lana egiaztatzea, praktikan agertzen diren zailtasunei buruzko aholkuak jasotzea, etab.

Bestalde, ikasgelan pedagogia terapeutikoko bi profesionalek eta laguntzaile batek esku hartzen dutenez eta ikasgela egonkorra ikastetxe arrunt batean sartuta dagoenez, profesionalen arteko koordinazioa areagotu eta horretarako zereginak, denborak eta espazioak zehaztu behar dira derrigorrez, baliabide pertsonalak eta materialak eta ikastetxeak eskaintzen dituen ikaskuntzako eta elkarreragin sozialeko aukerak ahalik eta modu egokienean errentagarri bihurtzeko. Beharrezkoa da, beraz, ikasgelan lanean aritzen diren profesionalek, pedagogia terapeutikoko irakasleek eta laguntzaileak zeregin didaktikoa antolatzeko, ikasle bakoitzarekin lana planifikatzeko eta honek behar duen jarraipen intentsiboa egiteko koordinazio-denborak ezartzea.

Koordinazioa ezartzeko beharra aurreikus daiteke, horretarako denborak eta espazioak antolatuz, ondoko parte-hartzaileekin:

- ikasgela egonkorreko irakasleen artean: PT eta laguntzailea
- familiekin
- ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin

- orientatzailearekin
- DBHko ikastetxeko irakasleekin: tarteka arlo jakin batzuetako irakasleekin, laguntza-irakasleekin, irakasleak ez diren langileekin, etab.
- PATekin eta Talde Multiprofesionalarekin
- logopedarekin, ikasgelan edo bertako ikasleren batekin lanean aritzen bada
- gizarteko beste zerbitzu batzuekin: tarteka osasun-zerbitzuak eta laguntza-zerbitzuak, aisialdi-zerbitzuak, elkarteak, etab.

Orokorrean, honako zeregin eta koordinazio-une hauek planteatu daitezke:

- ***Ikasturtearen hasieran.***

- Ikasgela egonkorraren curriculum-proiektua egitea
- Ikasle bakoitzaren HPB ezagutzea
- Lan Egitasmo Indibiduala ezartzea
- Ikasgelaren programazioa egitea: curriculum-proposamena, ikasgelaren ordutegia, eguneroko jardunari dagozkion jarduerak, eskola-irteerak, etab.
- Zuzendaritza-taldearekin, orientatzailearekin, TMParekin, etab. ikasgela egonkorreko ikasleek besteekin erabiliko eta burutuko dituzten “ikastetxeko bizitzari” dagozkion espazioak eta jarduerak ezartzea eta ingurune arruntan zein aldaketa egin behar diren zehaztea.
- Ikasturterako koordinazio-sistema proposatzea, bai ikastetxeko irakasleekin bai eta kanpoko beste zerbitzu batzuekin ere.
- Ikasleen jarraipena egiteko eta familiarekin eta beste profesional batzuekin koordinatuta egoteko aldiak ezartzea

- ***Ikasturtean zehar eta astean behin edo hamabostean behin***

- Ikasgelaren programazioari dagozkion zeregin zehatzak koordinatzea
- Ikasle bakoitzaren gertakari edo ekintza garrantzitsuen jarraipena egitea (joan-etorrien koadernoak, gertakarien koadernoak, etab.)
- Ikasgelaren jarduerari ikasteko estrategiak, materialak edo jarduerak esanguratsuak gehitzea

- Ikastetxe arruntari dagokionez, jarduera zehatzak proposatzea: adibidez jantokia egokitzea, ikasgela egonkorraren eta DBHko talde baten artean alderantzizko tutoretza proposatzea, ikasgelako ikasleen premiak ezagutaraztea, etab.

• ***Ikasturtean zehar, hiruhileko bakoitza hasi eta amaitzean***

- Ikasgelako lan-egitasmoa ebaluatzea
- Ikasle bakoitzaren egoera baloratu eta neurri pedagogiko egokienak ezartzea
- Ikasgela egonkorra ikastetxe arruntean sartuta egotea baloratzea eta zentzu honetan hobetzeko neurriak proposatzea
- DBHko ikastetxean erabilitako koordinazio-sistema aztertzea eta aldaketak proposatzea: ikasgela egonkorreko profesionalen artean, orientatzailearekin, zuzendaritza-taldearekin edo pedagogia-batzordearekin –ikastetxean halakorik badago-, jantokiko arduradunekin, etab.
- Familiarekin eta laguntza-zerbitzuekin ikasle bakoitzaren jarraipenerako eta orientabiderako beharrezkoak diren harremanak izatea.

Ondoren, modu batean edo bestean DBHko ikastetxe bateko ikasgela egonkorraren funtzionamenduan parte hartzen duten eragile desberdinen eta hauen artean planteatzen daitezkeen koordinazio-zeregin desberdinen eskema bat emango dugu.

	PT	Zuzendaritza-taldea	Laguntzailea	Orientatzailea	Arloetako irakasleak	PAT/TMP	Familia Bestelakoa k
PT	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgelaren programazioa Lana banatzea Ordu-tegiak egitea LEI lantzea Ikasgelaren Curriculum Proiektuan laguntzea Ikasgela antolatzea Ikasleei arreta eskaintzea 						
Zuzendaritza-taldea	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxeko HPB zehaztea Ikastetxean ikasgelako ekintza koordinatzea Ikasgela ikastetxeko bizitzan txertatzeko neurriak proposatzea Ikasgelaren Curriculum Proiektuaren ildoak PTarekin lantzea 	<ul style="list-style-type: none"> HPBen erantzuna Ikastetxean ikasgela egonkorra sartzeko neurriak Espazioak eta jarduerak partekatzekeo neurriak: aisialdia, jantokia, eskolaz kanpokoak, etab 					
Laguntzailea	<ul style="list-style-type: none"> Ikasle bakoitzaren HPB zehaztea Lana banatzea Ordu-tegiak Jarraipena Asteko koordinazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Ordu-tegiak eta koordinazioa antolatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei arreta eskaintzea Lana antolatzea Ikasleen plana jarraitzea PT eta TMPen arteko koordinazioa 				
Orientatzailea	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgela egonkorren curriculum-proiektua egiten laguntzen du Ikasgela egonkorren funtzionamendurako orientabideak 	<ul style="list-style-type: none"> HPB zehaztea Ikastetxeko HPB koordinatzea Ikasgela ikastetxean txertatzeko neurriak proposatzea Ikasgelaren integrazioa erraztea Ikastetxeko profesionalen koordinazioa erraztea 	<ul style="list-style-type: none"> Dagokionean koordinazio eta jarraipeneko jardueretan parte hartzea Ikasleen HPBei buruzko aholkularitza 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasgela egonkorren curriculum-proiektuaren burutzapenean orientatu eta laguntzea Ikasgelako ikasleengan eragina duten profesionalen koordinazioa erraztea 			
Arloetako irakasleak	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen lana koordinatzen dute, ikasgela arruntean jardueraren bat burutu badezake Jarraipena Jarduerarako materialak eta orientabideak 	<ul style="list-style-type: none"> Ikastetxean ikasgela txertatzeko neurriak Jarduera edo irakasgai batean parte hartzea erraztea 	<ul style="list-style-type: none"> Beharra duen ikasleari arreta eskaintzen diote besteekin burutzeko jardueretan 	<ul style="list-style-type: none"> Egin daitezkeen jardueretan ikasleen parte-hartzea erraztea Ikaslea ikasgela arruntera joaten bada bere jardupenean parte hartzea Koordinazioa PTrekin eta TMPrekin 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei arreta eskaintzen die ikasgela arruntean jarduerak burutu badikezake Jarduera orientabideekin egokitzea 		

PAT/TMP	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen HPB • Txostenak egiten ditu • Jarraipena • Ikasgelaren funtzionamendurako orientabideak • ICP, LEI eta ikasgelaren programazioa lantzeko orientabideak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelaren HPB zehaztea • Espazioak eta jarduerak besteekin partekatzeko neurriak proposatzea: aisialdia, jantokia, eskolaz kanpokoak, etab. • Beharrezkoak diren baliabideak proposatze • Ikasgelaren CPn aholkatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen HPB eta laguntzailearen parte-hartzea zehaztea • Ikasle bakoitzaren eta laneko egitasmoaren jarraipenean parte hartzea • Prestakuntza ziurtatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelako HPBeentzako erantzuna koordinatzea • Irakasleei aholkuak proposatzea • Ingurune arrunta egokitzeko orientabideak 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasle bakoitzari egokitutako aholkularitza eta materialak 	<ul style="list-style-type: none"> • HPB ebaluatzea • Txostenak egitea • Ikasleen jarraipena eta orientabidea • Ikasgelaren CP eta programazioa aholkatzea • Metodologia aholkatzea 	
Familia	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgela egonkorrean burutako lanaz informatzea. • LEIri buruz informatzea • Bere semearen eboluzioaren jarraipena egitea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxean familien parte-hartzea erraztea • Familien premiei buruzko informazioa eman eta jasotzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen jarraipenean parte hartzea • PTrekin eta beste batzuekin parte hartzen du familiari informatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiekiko harremana orientatzea • Irakasleekin eta TMPrekin parte hartzea, familiei informatuz 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek jardueraren batean parte hartzen badute, PTrekin informatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Orientatzea • LEIri eta ikasgela egonkorreko lanari buruz informatzen du • Eboluzioaren jarraipena egiten du 	
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none"> • TMPrekin, orientatzailearekin, zuzendaritza-taldearekin, etab. osasun-zerbitzuei, laguntza-zerbitzuei, eta abarri HPBei buruzko informazioa ematea 	<ul style="list-style-type: none"> • TMPrekin, orientatzailearekin, PTrekin, etab. osasun-zerbitzuei, laguntza-zerbitzuei, eta abarri HPBei buruzko informazioa ematea 	<ul style="list-style-type: none"> • TMPei, zuzendaritza-taldeari, etab. HPBei buruzko informazioa ematea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen HPB jakinaraztea • Gizarteko zerbitzuekin, osasun-zerbitzuekin, etab. koordinatuta egotea 	<ul style="list-style-type: none"> • TMPari, zuzendaritza-taldeari, etab. HPBei buruz informatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarteko zerbitzuei eta abarri jarduerak proposatzea • Komunitateekin koordinatuta egotea 	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuen arteko koordinazioa

DBHko ikasgela egonkor bateko ekipamenduak eta material didaktikoak, lehenik, ikasle-mota honentzat proposatzen dena bezalako curriculum bat garatzeko egokiak izan behar dute: alegia, *curriculum funtzionala eta eguneroko bizimoduari dagozkion eremu desberdinetan ahalik eta autonomia handienaz moldatzeko gaitasunak garatzen dituena*.

Egokia izan behar du etapa honetako ikasleen adin kronologikoarentzat; hau da, irakaskuntza eta ikaskuntzako materialak bat etorri behar du nerabezeroan dauden eta, beraz, heldutasunera igarotzearekin erlazioatutako alderdiak landuko dituzten ikasleen adinari dagozkion interes eta jarduerekin.

Gainera, kontuan izan behar dira ikasteko jarduerak garatzen diren testuinguruaren ezaugarriak, bai DBHko ikastetxearen testuingurua bai eta ikaskuntza-prozesuan erabil daitezkeen komunitateko beste espazio batzuk ere: testuinguru soziala, aisialdirako espazioak, kirol-espazioak, ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak burutzen direneko tokiak, etab.

Ikasgela Egonkorreko material didaktikoa ondokoen arabera aukeratu behar da:

- Garatzen den curriculum funtzionala
- DBHn HPB dituzten ikasleen adina
- DBHko ikastetxearen testuinguruaren ezaugarriak
- Gizarteko beste testuinguru batzuen ezaugarriak

Ikasgelaren ekipamenduak, bereziki bertan erabiltzen den material didaktikoak ezaugarri jakin batzuk bildu behar ditu eta hauek kontuan hartu behar dira material hori aukeratu edo egokitzean. Ondokoan azpimarratu nahi ditugu:

- Beren erabilerari eta erabiltzen diren inguruneko egoerei buruzko informazioa berez ematen duten materialak
- Ulertzen errazak direnak, abstrakzio-maila handia eskatzen ez dutenak eta egoera arruntak ulertzea ahalbidetzen dutenak. Batez ere errealistak, identifikatzen errazak eta eguneroko bizimoduaren jarduera zehatzekin lotzen errazak direnak aukeratuko dira.
- Erabilera independentea eta nork bere burua kontrolatzea ahalbidetzen dutenak, hau da, erabiltzailearen garapen-mailari eta adin kronologikoari egokituta egon beharko dute, modu independentean erabiltzeko aukera. Adibidez: zereginak burutzeko sekuentziak dituzten egutegiak
- Ohiko egoeretan erabiltzen diren materialen antzekoak, erabiltzen errazak, erakargarriak eta ergonomikoak izatea
- Komeni da erabilera malgua duten materialak izatea, horrela testuinguru desberdinetan baliagarriak izan daitezten eta aldi berean pertsona bakoitzaren premiei egokitu ahal izan daitezten.

Hemen iradokitzen ditugun material didaktikoek ez dute derrigorrez merkatuan erosten diren material espezializatuak izan behar. Kontua ez da material espezializatuak edo erabat sofistikuatuak aurkitzea, aitzitik, erabilera arrunteko materialak aprobetxatu eta, hala dagokienean, ikaskuntza-egoera bakoitzak eskatzen dituen exigentziei egokitu behar zaizkie. Garrantzitsua da antzeko adina eta eskola-testuingurua dituzten pertsonen gizarte- eta kultur errealitatetik hurbil dauden baliabideak izatea, hau da, nerabezaroan dauden eta DBHko testuingurua duten edo heldutasunera igarotzen ari diren pertsonen errealitatetik hurbil daudenak izatea. Beraz, berez aurreko baldintzak betetzen dituen edozein objektu edo baliabide izan daiteke baliagarria, benetan ikasleek ikas dezaten laguntzen badu.

Gure ustez egoera honetan Ikasgela Egonkorreko irakasleak ez dira material didaktikoekin datozen argibideen exekutoreak bakarrik, aitzitik, material desberdinak aukeratu, diseinatu eta, batez ere, egokitzeko funtzioa bete behar du, subjektu bakoitzak irakaskuntza-egoera desberdinetan ikasteko zer behar duen erabakiz.

Ikasgela Egonkorraren funtzionamenduaz hitz egitean, batez ere bi material-mota aipatuko ditugu: material didaktikoa eta Ikasgela Egonkorreko ekipamendua.

Ikasgela Egonkorreko material didaktikoa

Garatuko den curriculum eta lehenago aipatutako jarraibideak kontuan hartuz, material didaktikoari dagokionez batez ere mota jakin batzuk planteatuko dira:

- *Eguneroko bizimoduan autonomia lantzeko materialak*
 - Etxean erabiltzeko materialak: sukaldea, mahaia, sukaldeko tresnak, etxetresna elektriko sinpleak, etab.
 - Elikadura-materialak
 - Garbitzeko eta txukuntzeko materialak: armairuak, pertxak, plantxa, pintzak, etab.
 - Labainkada kontrako materialak: objektuak, mahai-zapiak, mahai-tresnak, platerak, etab. jartzeko eredudun azpilak
 - Pisatzeko, neurtzeko eta zenbatzeko materialak eta tresnak: zentimetroa, pisua, balantza, txanponak, kalkulagailua, etab.
 - Eguneroko bizimoduari dagozkion jarduerak simulatzeko materialak: dendan, kafetegian, jatetxean, kiroldegian, autobusean, etab.
 - Komunikaziorako materialak: telefonoa, gutunak, postalak, etab.
 - Manipulazioko eta lanean hasi aurreko jarduerak garatzeko materialak eta erremintak: guraizeak, zerra, zurak, lekedak, pintzelak, azkoinak, enbalatzeko kaxak, etab.

- *Ikusentzunezko materiala*
 - Marrazki errealistak dituzten irudiak edo testuinguru desberdinetako egunero erabiltzen diren objektuak nahiz eguneroko bizimoduko egoera arruntak irudikatzen dituzten grafikoak: aisialdia, familia, lana, kirola, etab. Argazkiak eta normalean dendetan egon ohi diren marrazki errealistak erabil daitezke.
 - Eguneroko bizimoduari dagozkion jardueren argazki-sekuentziak dituzten irudiak: marrazkien bidez irudikatutako errezeta bat egitea, landareen zaintzari buruzko ikusmen-adierazpenak dituen fitxategi bat, egutegi bat animaliak zaintzeko argazkiekin, nork bere burua garbitzeko jardueren argazki-sekuentziak, etab.

- Ikusmen-gakoak, agenda pertsonalak, piktogramak, egutegiak, etab. egiteko material suntsigarria: kartulinak, belkroak, zinta itsagarria, plastifikatutako materialak, etab.
- Egoera zehatz bat finkatuko duten argazkiak ateratzeko uneko argazki-makina.
- Entzumen- eta ikusmen-materiala: kasetea, walkmana, ordenagailua, euskarri informatikoko programak irudi eta marrazki egokiekin, etab.
- Oinarrizko ezagutzei buruzko eta/edo ohiko elkarreragin sozialeko egoera islatzen dituzten argazki eta marrazkidun diapositibak.
- Musika- eta soinu-materiala: musika-tresnak, musika-zintak, hotsen eta soinuen grabazioak, etab.

• *Garapen kognitiborako materiala*

- Material grafikoa eta erraz manipulatzekoa logikari, sailkapenari, antzekotasunei eta abarri dagozkien alderdiak garatzeko: ekintza-ondorioko gertakariak dituzten biñetak, neurri desberdinetako erremintak eta torlojoak, pisatu eta neurtzeko tresnak, objektu berberak jarrera desberdinetan eta ikuspegi desberdinetan irudikatzen dituzten argazkidun txartelak, ohiko gizarte-egoeren irudikapenak, etab.
- Tamaina txikiko material errealak sailkapenak, antzekotasunak, antolaketak, etab. egin ahal izateko: botoiak, pintzak, azkoinak, hariak, etab.
- Irudien, koloreen, sinboloen, zenbakien eta abarren argazkiak
- Forma geometrikoen, irudien, material edo erreminta desberdinen eta abarren ziluetak.
- Espazioari eta denborari dagozkien kontzeptuak garatzeko materiala: asteko eta hileko jardueren egutegiak, egutegi konbentzionala, ordularia, espazioarekin eta denborarekin erlazionatutako elkarreragin sozialeko egoeren irudikapenak, etab.
- Irakurtzen eta idazten metodo konbentzionalaren bitartez edo ikusmen-gakoen bidezko nahiz zeinuen bidezko beste sistema batzuen bitartez ikasteko material grafikoak edo inprimakiak: elikagaien edo denden izenak idatzita dituzten txartelak, denden errotuloak, kaleen eta hirien izenak, etab.
- Irudiak dituzten liburu errazak.
- Zenbakia eta kantitatea garatzeko materialak: zenbaki-materiala, abakoak, neurrien erregeletak, txanponak, termometroak, pisuak, edukiera-neurriak, kalkulagailua, etab.

• *Garapen fisikorako, sentimenen garapenerako eta aisialdiaren garapenerako materiala*

- Segurtasunarekin eta osasunarekin erlazionatutako alderdiak lantzeko materialak: pisua kontrolatzeko taulak, dieten menuak, arretaren, su-adierazpenen, larrialdietarako irteeraren, arriskuaren eta abarren sinboloak dituzten txartelak
- Mahai-jokoak: dominoa, partxisa, kartak, dadoak, galdera-erantzunen jokoak, txanda-jokoak, etab.
- Mugikortasun arina garatzeko materialak: ehunak, jostura, erremintak, haria sartzeko eta puntua egiteko saretak eta sokak, zulatze taulak, etab.
- Kirol-zereginak eta kirola egin aurreko zereginak garatzeko materialak: bola-jokoak, sarean sartzeko baloia, ping-pongeko mahaia, bizikleta, tamaina txikiko koltxonetak, etab.

•*Laneko trebetasunak garatzeko materiala*

- Era desberdinetako manipulazio-jarduerak eta lantegian hasi aurreko jarduerak burutzeko erremintak: guraizeak, zerra, egurrak, lekedak, pintzelak, kortxeteak, kremaierak, etab.
- Papera erabiltzeko trebetasunak garatzeko materialak: tolestu, grapatu, zulatu, etiketa jarri, enbalatu, itsatsi, etab.
- Zura erabiltzeko trebetasunak garatzeko materialak: neurtu, lixatu, iltzez josi, itsatsi, etab.

•*Irakasleentzako kontsulta-materiala*

- Hezkuntzari, autismoari eta burutiko atzerapenari buruzko fondo bibliografikoa.
- Eranskinaren bibliografia.

Ikasgela egonkorreko ekipamendua

Ikasleei zuzendutako hezkuntza-zereginaren zatirik handiena ikasgela egonkorrean planifikatzen eta garatzen da. Honek bete behar duen baldintzarik oinarrizkoena da ikasgela egonkor gisa bakarrik erabiltzeko espazio bat izatea, bertara joaten diren ikasleek etenik gabeko giroa eta ingurunearen, espazioaren eta baliabideen diseinu egituratua behar baitute. Toki argia eta zabala izan behar du eta bertan ondo bereizitako azpi-espazioak edo “*laneko zonak*” antolatu ahal izango dira zeregin desberdinak garatzeko; ikasgela egonkorraren metodologia aktiboa eta funtzionala izango da eta testuinguru errealean edo simulatuak izan arren errealitatearekiko ahalik eta antzekotasun handiena duten testuinguruetan aplikatuko da.

Baldintza hauek eta espazioa eta mugikortasuna behar dituzten ikasle nerabeak direla kontuan hartuz, ikasgelaren neurri egokia gutxi gorabehera 50 metro karratukoa izango da. Gainera komeni da ikasgelan konketa bat egotea edo halako bat instalatzeko aukera izatea.

Ikasgelako material-hornikuntza zabala izango da gutxi gorabehera; komenigarriena honako material hauek izatea da:

- Ikasleen adinari egokitutako 6 mahai indibidual eta 6 aulki
- Irakasleentzako mahai 1 eta 2 aulki
- Laneko mahai zabal 1, 6 pertsonarentzat
- Arroparentzako 10 pertxa
- Klerarentzako arbel 1
- Errotuladorearentzako arbel zuri 1
- Arbel edo panel magnetiko 1
- Diapositibak proiektatzeko pantaila edo horma 1
- Tamaina handiko ispilu 1
- Kortxoeko 3 panel handi
- Espazioak bereiztea ahalbidetuko duten tamaina ertaineko 3 apal
- Material didaktikoarentzako zurezko 3 armairu (azpiko aldean itxiak)
- Gorputz osoko armairu itxi 1
- 2 eserleku suediar
- Alfonbra edo zerria 1 (5m x 3m)
- 8-10 kuxin
- Plastifikatzeko makina 1
- Artxibategi 1
- Paperontzi 1
- Euritako-ontzi 1


Komeni da ikasgela egonkorrean autonomia pertsonaleko eta eguneroko bizimoduan gertatzen dena simulatzeko jarduerak garatzeko materialak izatea. Halere, zaila izan daiteke batzuetan ikastetxeak jarduera horiek irakatsi eta praktikatzeko behar den ekipamendu guztia izatea eta, beraz, ikastetxe osoan dauden baliabideak nahiz ikastetxeaz kanpoko beste baliabide batzuk ere erabili behar dira.

Gizarte-ingurunea eta komunitatea autonomia pertsonala garatzeko hezkuntza-balio handia duten baliabide didaktikoak dira minusbaliotasun handiko pertsonen kasuan. Errealitateak berak baliabide egoki ugari eskaintzen dizkigu: dendak, kaleak, osasun-zerbitzua, aisialdi-zerbitzuak, etab.; hauek eguneroko bizimoduaren zati bat dira eta ikaskuntza errazteko ingurune gisa aprobetxa daitezke.

Ikasgela egonkorraren espazio fisikoa banatzeko orduan kontuan izan behar da zein garrantzitsua den inguruak ikasleei etengabe eta ikusmen-gakoen, kartelen, argazkien, egutegien eta abarren bidez eguneroko edo asteko jardunean burutu behar dituzten jardueri buruz informazio ulergarria eskaintzea. Aintzat hartu behar da, era berean, ingurunea iraunkorra eta egituratua izateak duen garrantzia, baina baita, jarduera desberdinak garatzeko altzarietan aldaketak egiteko aukera ere: taldeko jarduerak, jarduera indibidualak, gizarte-egoeren simulazioa, etab.

Ondoko planoan agertzen dena bezalako banaketa bat planteatu daiteke:

PROPOSAMENA: IKASGELA EGONKORREKO ESPAZIOAREN PLANOA ETA ANTOLAMENDUA:



- 1 armairua
- 2 apalak
- 3 irakasleen mahaia

- 4. ikasleen mahaia
- 5 talde-lanerako mahai handia
- 6 alfombra

1. ERANSKINA: Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuko elementuak. Lantzeko gida

Nola sartu behar da DBHko ikastetxearen Curriculum Proiektuan?

Eranskin hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean Ikasgela Egonkor baten Curriculum Proiektua nola landu daitekeen erakusten duen adibide bat da. Hemen adierazi ditugu ikasgelako ikasleen premiei egokitutako hezkuntza-proposamen bat egiteko kontuan har daitezkeen eta ikastetxearen proiektu orokorrari gehitzea komeni den elementuak. Baina elementu bakoitza zenbait alternatiba edo erantzun desberdinekin aurkezten da, horrela irakasle-talde bakoitzak bere errealitate zehatzaren arabera aukera egokiena hauta dezan.

Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua lantzean kontuan hartu behar diren alderdiak eta gure ikastetxeak dituen aukerak

1. Ikasgela Egonkorraren Proiektuaren helburua

Gure ikastetxeko Ikasgela Egonkorraren Proiektuak ikasgela egonkorreko ikasleei beren beharrei egokitutako heziketa eskaintzea du helburu eta, horretarako, curriculuma egokituko da eta baliabide bereziak eskainiko dira ikasleei laguntzeko.

2. Hezkuntza-helburuak

Ikasgela egonkorrean ditugun helburuak honako hauek dira:

- Norberaren jokabidea kontrolatu eta artikulatzea, ingurukoak eta egoera bakoitzaren arau eta balioak kontuan hartuta.
- Inguru ulertzeko estrategiak garatzea, berori behar den moduan egokituz.
- Ikasleengan hitzezkoak nahiz hitzezkoak ez diren komunikatzeko estrategiak garatzea, beharrak, emozioak eta nahiak adierazi ahal izateko.
- Autonomiaz jokatzeko ahalbidetuko dieten ikaskuntza funtzionalak eskaintzea.
- Ohiko inguruetan gaitasun handiagoz ibiltzen lagunduko dieten trebetasunak garatzea, egungo egoeran eta etorkizunean pentsatuz eta alderdi hauek kontuan hartuta: familia, eskola, lanbidea eta lan-mundua, aisia eta elkartea.
- Eguneroko bizimoduko egoeretan sortzen diren arazoei irtenbidea emateko estrategiak garatzea.
- Eskolako, gizarteko nahiz familiako egoera normalizatueta aktiboki parte hartzea.
- Bizitza heldura errazago igarotzeko gaitasunak, trebetasunak eta teknikak garatzea eta ikasle bakoitzari urrats hori emateko baldintza onenak eskaintzea.
-

3. Ikasleen hezkuntza-premia bereziak (HPB)

Ikasgelan honelako arazoetatik ondorioztatutako hezkuntza-premiak dituzten ikasleak daude:

- Autismoa burutiko atzerapenarekin
- Burutiko atzerapen larria
- Garapenaren nahaste orokorrak
- Beste arlo batzuekin lotutako nahasteak
- Mota askotako urritasunak
-

Ikasgela egonkorreko ikasleen hezkuntza-premia nagusiak honako alderdi hauei buruzkoak dira:

- Nahasketak hitzeko komunikazioan nahiz hitzezkoa ez den komunikazioan.
- Nahasketa gizarte-inguruaren ulermenean.
- Autonomia pertsonalik ez izatea.
- Zailtasun larriak gizarteko elkarreraginean.
- Jolasteko eta fikziozko imajinazio falta.
- Osasuna, ongizate fisikoa eta emozionala zaintzeko beharra.
- Portaera kontrolatzeko zailtasunak.
- Garapen kognitiboan zailtasunak.
- Oso interes mugatuak.
- Laguntza, bakarkako arreta eta baliabide berezien beharra.
- Ikaskuntza-ingurua egokitzeko beharra.
-

4. Ikasgela egonkorreko egitura eta baliabideak

Gure ikastetxeko ikasgelak hezkuntza-premia bereziak eta iraunkorrak dituzten ikasleak hartzen ditu eta, adinari dagokionez, honako hauek sartzen dira:

- 12-16 urte artekoak
- 14 urtetik gorakoak
- 16 urtetik gorakoak

Gela honek pedagogia terapeutikoko (PT) 2 profesional espezialista eta laguntzaile bat ditu; profesional horietako bat gelaren tutorea izango da.

Esku hartzen du gainera

- Ikasgelako espazio fisikoa ikastetxeko eraikinean integratuta dago eta kokagunea ondorengoa da:.....

5. Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuaren egitura

Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektuak **DBHko bi zikloetarako** helburuak eta ikaskuntzako edukiak ditu. Helburuen eta edukien zehaztapena eta horien denboraren banaketa esparru hauetan egingo da:

- Ikasgelaren programazioan
- Ikasle bakoitzaren Banakako Lanerako Programan (BLP)
-

Curriculum **funtzionala** proposatzen dugu, trebetasun eta estrategien lorpenean oinarritzen dena, eta ondorengo edukiak azpimarratuko ditugu bertan:

- Prozedurazko edukiak
- Zeregin arruntak egiteko edukiak
- Trebetasun funtzionalak garatzeko edukiak
- Ikastetxeko testuinguru esanguratsuetako edukiak: ikasgela, jangela, sukaldea...
- Ikastetxetik kanpoko testuinguruetako edukiak: kafetegia, kalea, denda....
-

Ikaskuntzako helburuak eta edukiak, prozedurak, estrategiak, trebetasunak etab. honela antolatuko ditugu:

- egokitzapen-gaitasunak
- esperientzia-eremuak edo arloak

Ebaluazio-irizpideak ikasle bakoitzaren arabera izango dira eta honako hauetan bilduko ditugu:

- Ikasgelaren programazioan
- Ikaslearen Banakako Lanerako Programan
-

6. Helburuak eta edukiak hautatzeko irizpideak

Ikaskuntzako helburuak eta edukiak hautatzeko ondorengo irizpideak izango ditugu kontuan:

- Adin kronologikoa eta horrekin lotutako interesak eta motibazioak
- Ikasleen hezkuntza-premiak

- Ikasleen oinarrizko ikaskuntzak une honetan eta etorkizunari begira
- Ikaskuntza funtzionalak
- Trebetasun alternatiboen irakaskuntza
- Ikasle bakoitzaren interes eta gustu pertsonalak
- Ikaslearen inguru hurbileko beharrak eta interesak: gizartea eta familia
-

7. Aukera metodologikoak

Oro har, irakaskuntzan ondokoak egingo dira:

- Ondo egituratutako ikaskuntza-inguruak prestatu (eguneko sekuentzia erregularrak, uneoro ikus daitezkeen elementuak, zereginen egutegiak...)
- Beharrezko trebetasunak ikasteko testuinguru naturalak erabili
- Ikastetxeko inguru naturalak erabili: jangela, komunak, jolastokiak...
- Gizarteko inguruak erabili: denda, kiroldegia, osasun-zerbitzuak...
- Gertakarietan oinarritutako irakaskuntza
- Errealitateko jardueren simulazioa
- Zeregin arrunten azterketa, beharrezko laguntzak eskaintzeko eta poliki-poliki laguntza horiek kentzeko
-

Komunikazioko eta gizarteko **trebetasunak** irakasteko, ikasle bakoitzari egin behar zaion bakarkako ebaluazioaz gain, oro har, honako hauek erabiliko ditugu:

- Ikusizko laguntzak eta gakoak
- Metodo handigarriak
- Komunikatzeko metodo alternatiboak
-

Jokabideari dagozkion arazoetan honela jokatu dugu:

- Jokabidearen funtzionamendua aztertzea banaka
- Jokabide-arazoak eragin ditzaketen inguruko baldintzak aztertzea
- Jokabidearen tratamendua banaka
-

8. Ikasgelaren antolamendu didaktikoa

Ikasgela ikasleentzat erreferentzia egonkorra izatea nahi dugu, hezkuntza-zereginaren plangintza eta garapena egiteko tokia.

Heziketa-lanerako ikasgelak ondokoak izan behar ditu:

- Zeregin desberdinak garatzeko lanerako zona desberdinak
- Zeregin desberdinak garatzeko egokitutako erabilera askotariko ingurua
-

Trebetasun desberdinak irakasteko ikastetxeko ondorengo gela eta aretoak erabiliko ditugu:

- | | |
|-------------------------------------|-------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Sukaldea | <input type="checkbox"/> Liburutegia |
| <input type="checkbox"/> Jantokia | <input type="checkbox"/> Sendagilearen gela |
| <input type="checkbox"/> Kiroldegia | <input type="checkbox"/> Komunak eta bainugelak |

Egokitzapen-gaitasun desberdinak irakasteko ondoko zerbitzu komunak erabiliko ditugu:

- | | |
|-------------------------------------------|-----------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Supermerkatua | <input type="checkbox"/> Autobusa |
| <input type="checkbox"/> Osasun-zerbitzua | <input type="checkbox"/> Metroa |
| <input type="checkbox"/> Kafetegia | <input type="checkbox"/> Farmazia |
| <input type="checkbox"/> Zinea | <input type="checkbox"/> Denda |
| <input type="checkbox"/> | |

Ikasgela egonkorrak ondorengo lanak egiteko **material didaktiko** berezia izango du:

- Gizarteko elkarreraginezko egoeren simulazioa
- Fikzio eta joko sinbolikoaren garapena
- Ikus-entzunezko materialaren bitartezko komunikazioa
- Garapen kognitiboa material informatikoa erabiliz
- Autonomia eguneroko bizimoduan
- Norberaren zainketa
- Garapen kognitiboa
-

Ikasgelaren programazioak ondorengo alderdiak bilduko ditu:

- Ikasgelako ikasleen hasierako ebaluazio orokorra
- Ikaskuntzako helburuak
- Ikaskuntzako edukiak
- Hainbat hezkuntza-testuinguru esanguratsutan garatu beharreko edukiak
- Erabaki metodologikoak
- Ikasleen jarduerak
- Materialen egokitzapena
- Ikasgelako giroaren diseinua
- Ikasle bakoitzaren ebaluazioari eta jarraipenari buruzko erabakiak
-

Horrez gain, **antolamenduarekin** lotutako alderdiak izango ditu:

- Asteko ordutegia
- Ikasgelako espazioaren antolamendua
- Eguneko ordutegia
- Ikasgelako espazioaren antolamendua
- Guztien artean egiteko jardueren ordutegiak
-

9. Ikastetxeko jardueran eta guztiok batera egiteko jardueretan parte hartzeko printzipioak

ICPn hartutako erabakietan oinarrituta, gure ikasleak beste ikasleekin batera **sartu** eta **irtengo** dira eta guztiak elkarrekin **bazkalduko** dute eta **jolastokira** ere elkarrekin irtengo dira. Honako hauek ere elkarrekin erabiliko dituzte:

- Jolasteko espazio guztiak, baita eguerdiko atsedenean ere
- Kiroldegiko jarduera guztiak
- Kiroldegiko jarduera batzuk (zehaztu).....
- Eskolaz kanpoko irteera guztiak
- Eskolaz kanpoko irteera garrantzitsuenak (kurtso amaiera...)
- Eskolako jai-egunen jarduerak
- Aisialdiko jarduera guztiak
- Aisialdiko jarduera batzuk (zehaztu)
-

10. Banakako Lanerako Programa (BLP) eta ikaslearen jarraipena

Ikasgela egonkorrean eskolatutako ikasle bakoitzak BLP berezia izango du, Ikasgelaren Curriculum Proiektuan oinarrituta egingo da eta programa horrek curriculum norbanakoari egokitzeko izaera izango du.

BLP ikasturte hauetarako egingo da:

- ikasturte baterako
- 2 ikasturterako
-

eta berrikuspena honela egingo da:

- Hiru hilero
- 2 aldiz ikasturtean
- 2 aldiz ikasturtean

Ikasle bakoitzaren **bilakaeraren jarraipena** egingo da:

11. Ikasgelako profesionalen koordinazioa

Ikasleei eskaintzen zaien arretan profesional batek baino gehiagok parte hartzen duela kontuan izanik, koordinatzeko jarduerak ezarriko ditugu ondokoan artean:

- Ikasgelako PTKo irakasleen artean.
-

Helburua:

- Ikasgelako jarduera ebaluatzeko Inguru hurbileko parte-hartzea ebaluatzeko
- Ikasgelako lana antolatzekeo BLP egiteko
- Familiekin bilerak antolatzekeo Beste batzuk

12. Ikasleen ebaluazioa. Familiei eta ikasleei zuzendutako informazioa

Ikastetxeko familia guztiei zuzendutako ikastetxeko informazio orokorrean gain, ikasgela egonkorraren kasuan ondoko informazioa emango zaie:

- Ikasgela egonkorraren hezkuntza-helburua
- Ikasgelaren antolaketa, metodologia eta programazioa
- Bere seme edo alabaren bilakaera
- BLPren helburuak eta hezkuntza-edukiak
- Familiaren testuinguruan eman daitezkeen laguntzak
- Zailtasun bereziko uneetako egoera
-

Ikasgelako **ikasleen ebaluazioa** banaka egingo da, ikasle bakoitzaren BLPko helburuak kontuan izanik. Ebaluazioaren helburua ondokoa izango da:

- banakako laguntzak egokitzea ikaslearen aurrerapenak ezagutzea
- ikasgelaren programazioa berrikustea jarduerak aldatzea
- BLP aldatzea

Ebaluazio hau gainerako ikasleen maiztasun berberarekin egingo da. Familiei eta ikasleari berari informazioa emango zaie, informazioaren edukia ikasleen ulermen-mailara egokituz.

Hiru hilean behin, ikasle bakoitzaren bilakaeraren txosten idatzi bat prestatuko dugu eta txosten horren edukia ondorengoa izango da:

- Egokitzapen-gaitasunen arlo desberdinetan barneratutako gaitasunak
- Sakondu behar diren ikaskuntzako edukiak, trebetasunak edo zereginak
- Jarraipen zorrotza eskatu duen egoera bat hobetzeko egindako ekintzen emaitza
- Gizarteko edo integratzeko jardueretan parte hartzearen emaitza
- Behar dituen laguntzak eta mantendu behar den baliabidea
- Hurrengo aldirako jarraibideak eta orientabideak
- Familian eta gizartean finkatu behar diren jarduerak
-

13. Ikasgela egonkorraren ebaluazioa

Ikasgela Egonkorraren Curriculum Proiektua Ikastetxearen Curriculum Proiektuarekin batera berrikusiko da. Ebaluazioan ondorengo adierazleak edo ebaluazio-irizpideak izango ditugu kontuan:

- Ikasle bakoitzaren eskolatze egokia
- Ikasleen mailaren arabera egokitutako ikaskuntzako helburuak eta edukiak
- Adin kronologikoaren arabera egokitutako ikaskuntzako helburuak eta edukiak
- Ikaskuntzako edukien funtzionaltasuna

- Erabilitako metodologiaren egokitzapena
- Garatutako ikasgelaren programazioaren erabilgarritasuna
- BLPren zehaztapena
- Ikasle bakoitzaren ikaskuntzaren emaitzak
- Ikastetxeko jarduera arruntetan parte hartzearen maila eta kalitatea
- Eraginkortasuna zailtasun puntualak lantzeko: portaera, elikadura, osasuna...
- Profesionalen koordinazio eraginkorra
- Materialen eta inguruaren egokitzapena
- Ikasle bakoitzaren asetasun-maila eta ongizatea
- Familiaren asetasun-maila (elkarrizketaren edo inkestaren bidez)
-

14. Ikasgela egonkorraren curriculum

Ikus 7. Ataleko curriculum-edukien adibidea.

2. ERANSKINA: Ikasgela Egonkorraren Programazioko elementuak. Lantzeko gida.

Ondoren emango dugun gidoiak ikasgela egonkorraren programazioa denbora jakin baterako eta ikasle-talde zehatz batentzako planifikatzeko orduan kontuan har daitezkeen alderdi edo aldaera desberdinak aurkezten ditu. Praktikan ez da ezinbestekoa hemen agertzen diren alderdi guztiak deskribatzea, aitzitik, nahikoa da egoera zehatz bakoitzaren programaziorako esanguratsuenak direnak aukeratzea. Halaber adierazi behar da ikasgelako lana programatzerakoan hartzen diren erabakietako batzuk zuzenean ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibidualarekin loturik daudela.

Ikasgelaren programazioan kontuan hartu beharreko alderdiak

Kontuan hartu beharreko alderdiak	Ikasgelaren programaziorako erabakiak	Lan Egitasmo Indibiduala
<p>1º Aldez aurreko informazioa</p> <p><i>Ikasgelaren eta ikasleen hasierako ebaluazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelaren ezaugarriak • Ikasleen ezaugarriak • Adina • Ikasleen hezkuntza-premiak • Aurreko programa indibidualak <ul style="list-style-type: none"> - Datu esanguratsuak - Lan Egitasmorik badagoen ala ez - Aurreko Lan Egitasmo Indibidualak - Aurrekoak berriz lantzeko premia - Etab. • Erabili diren baliabideak eta laguntzak • Ikasle bakoitzak egokitzapen-trebetasunen arloetan gaur egun dituen gaitasunak: <ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioa - Nork bere burua zaintzea - Etxeko bizitza - Gizarte-trebetasunak - Komunitatearen erabilera - Etab. (Informazio hau ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibidualean sartzen da.) • Esku-hartze bereziak: sendagilearen arreta, laguntzaileen arreta, sendagaiak ematea, etab. • Ikasgelaz arduratzen diren langileak: laguntzailea, tutoreak, bestelakoak, etab. • Ikasgelan modu puntualean esku hartzen duten beste profesional batzuk. • Programazioaren denboralizazioa • Bestelako batzuk, etab. 	<p><i>Ikasgela Egonkorreko lanerako erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibidualean sartu behar diren eta ikasgelaren programazioan adierazten ez diren alderdiak</i></p>

Kontuan hartu beharreko alderdiak	Ikasgelaren programaziorako erabakiak	Lan Egitasmo Indibiduala
<p>2^a Curriculuma: Helburuak. Edukiak. Metodologia</p> <p><i>Ikaskuntza-helburuak eta -edukiak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelaren helburuak • Garatuko diren egokitzapen-eremuak edo -trebetasunak • Eremuen edo trebetasunen edukiak (7. kap.) • Ebaluazio-irizpideak (7. kap.) • Landu beharreko Lan Egitasmoak • Egokitu beharreko Lan Egitasmo Indibidualak • Ikasleekin lan egiteko erabiliko diren ikastetxearen inguruneak <ul style="list-style-type: none"> - Jantokia - Sukaldea - Jolastokiak - Liburutegia - Ordenagailuen gela - etab. • Aukeratutako ingurune arruntak diseinatzea • Ingurune bakoitzean landu beharreko edukiak • Ingurune bakoitzeko materialak eta baliabideak • Ingurune bakoitzeren programazioaren denboralizazioa • Ikasleekin lan egiteko erabiliko diren gizarteko inguruneak (4-5. eranskina) <ul style="list-style-type: none"> - Anbulatorioa - Igerilekua - Kioskoa - Supermerkatua - Kafetegia - Etab. • Ingurune bakoitzean landu beharreko edukiak • Ingurune bakoitzeko material didaktikoak • Ingurune bakoitzean programazioa denboralizatzea • Bestelako batzuk, etab. <p><i>Alderdi metodologikoak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa, ulermena eta gizarte-trebetasunak garatzeko metodologia • Jokabide erronkarien aurrean dauden aukerak • Ikaskuntza funtzionalarako metodologia • Norberaren autonomiarako eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko metodologia • Ikasgelako eta ikastetxeko giroa diseinatzea: pasilloak, bulegoak, beste gela batzuk, etab. • Ikasle jakin batentzako metodologia zehatza • Bestelako batzuk, etab. <p><i>Ikasleen jarduerak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko jardueren oinarritzko programa • Eguneko ordutegia 	<p><i>Ikasgela Egonkorreko lanerako erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibidualean sartu behar diren eta ikasgelaren programazioan adierazten ez diren alderdiak</i></p>

Kontuan hartu beharreko alderdiak	Ikasgelaren programaziorako erabakiak	Lan Egitasmo Indibiduala
<ul style="list-style-type: none"> • Asteko jardueren programa: bideoa, sukaldea, igerilekua, etab. • Hileko jardueren programa: parkerako, kafetegirako eta abarrerako irteerak, etab. • Jarduera bereziak: ibilaldiak, udalekuak, etab. • Ikasleek parte hartzen duten ikastetxeko jarduerak: inauteriak, Olentzaro, irteerak, etab. • Beste ikasle batzuek parte hartzeko jarduerak: tutoretza, jantokian laguntzea, etab. • Ikasle hauen funtzioak eta zereginak • Beste batzuk,... <p>3º Antolamenduari dagozkion elementuak</p> <p>Materialak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa garatzeko baliabide didaktikoak: gakoak, piktogramak, argazkiak, etab. • Laguntza teknikoak eta informatikoak • Ikasgelaren eta ikastetxearen espazioaren diseinurako materialak: grafikoak, agendak, etab. • Ikasle zehatzentzako material bereziak • Bestelako batzuk, etab. <p>Denboraren antolamendua</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelako jardueren ordutegia eta egutegia • Taldearen jardueren ordutegia • Arreta indibidualizaturako ordutegia • Ikasle zehatz batentzako ordutegi bereziak • Tutoreen eta laguntzailearen dedikazioa • Esku hartzen badute, beste profesional batzuen ordutegia <ul style="list-style-type: none"> - Logopeda - Fisioterapeuta - Eskolako sendagilea, etab. • Ikastetxeko ikasleekin jardueretan parte hartzeko ordutegia. • Bestelako batzuk, etab. <p>Espazioaren antolamendua</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelan lan-zonak banatzea • Ikastetxean lan-zonak banatzea 	<p><i>Ikasgela Egonkorreko lanerako erabakiak.</i></p>	<p><i>Ikasle bakoitzaren Lan Egitasmo Indibidualean sartu behar diren eta ikasgelaren programazioan adierazten ez diren alderdiak</i></p>

Kontuan hartu beharreko alderdiak	Ikasgelaren programaziorako erabakiak	Lan Egitasmo Indibiduala
<ul style="list-style-type: none"> • Atsedenerako, jolaserako, esfinterrak kontrolatzeko, etab. espazioak ezartzea • Ikastetxeko ikasleekin erabili beharreko espazioak • Espazioa egokitzeko materialak • Koordinazio-bileretarako espazioa • Bestelako batzuk, etab. <p><i>Ebaluazioa. Jarraipena. Koordinazioa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen jarraipenerako saioak • Lan Egitasmo Indibidualen ebaluazioa • Ikasle bakoitza ebaluatzeko denborak • Familiekin egin beharreko bilerak • Ikasgelako Programa ebaluatzea • Ikasgelako irakasleen eta ikastetxeko irakasleen ordutegia eta elkarrekiko koordinazioa • TMPrekin bilerak (Talde Multiprofesionala) • Hezkuntzakoak ez diren zerbitzuekin bilerak • Koordinazio-bilerak PAT zonan • Bestelako batzuk <p style="text-align: center;"><i>Beste ohar batzuk</i></p>		

3. ERANSKINA: Lan Egitasmo Indibidualeko elementuak. Lantzeko gida.

Eranskin honetan proposatzen den ereduak 1998ko abuztuaren 31ko EHAAn agertutako 1998ko uztailaren 30eko Aginduan, HPB dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideei buruzkoan, adierazitakoa jasotzen du gehiago hedatuta. Agindu horretako IV. kapituluaren 30. Artikuluak Ikasgela Egonkorretan eskolatutako ikasleen Lan Egitasmo Indibiduala lantzeko jarraipenak ezartzen ditu.

Lan Egitasmo Indibiduala lantzeko elementuak

<p><i>DATU PERTSONALAK:</i></p> <p>Izena:</p> <p>Adina:..... Jaiotze-data:</p> <p>LEI landu zeneko data: Aplikazio-aldia:</p> <p><i>ESKU HARTZEN DUTEN PROFESIONALAK:</i></p> <p>Tutorea:.....</p> <p>Ikastetxeko beste profesional batzuk:</p> <p>Orientatzailea:</p> <p>PAT:</p> <p>Beste profesional batzuk:</p> <p>.....</p> <p><i>IKASTETXEAREN DATUAK:</i></p> <p>Ikastetxea:..... Ikasgela Egonkorra:</p>

<p><i>HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK</i></p> <p>Premia garrantzitsuenak:</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>- ondoko eremuetan:.....</p> <p>- ondoko egokitzapen-trebetasunetan.....</p> <p>- behar dituen baliabideak.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>Diagnostikoei/kodeei dagozkien ardatzak:</p> <p>Lan Egitasmoaren lehentasunak:</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

LAN EGITASMO INDIBIDUALA

HELBURUAK (zabalak eta orokorrak):...

.....

.....

.....

IKASTEKO EDUKIAK:

Lehentasunak	Egokitzapen-trebetasunen arloak*	Urteko edukiak	Metodologia	Materialak
1	<ul style="list-style-type: none">• Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none">• Behar duena beste bati zeinuen bidez adieraztea• Egunean zein jarduera burutu nahi duen adieraztea• etab.	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxeko eta gizarteko inguruneak• Ikusmen-laguntzak eta zeinuak• Jardueren piktogramak• Etab.	<ul style="list-style-type: none">• Argazkiak, sinboloak• Piktogramak• Egutegiak• Letra idatzia
4	<ul style="list-style-type: none">• Nork bere burua zaintzea			
6	<ul style="list-style-type: none">• Etxeko bizitza			
2	<ul style="list-style-type: none">• Gizarte-trebetasunak			
3	<ul style="list-style-type: none">• Gizartearen erabilera• Etab.			

* Ikaskuntzak esperientzia-eremuetan edo egokitzapen-trebetasuneko arloetan programa daitezke

BESTE OHAR BATZUK:

Ikastetxe arrunteko ikasleekin burutu beharreko jarduerak:.....

.....

Nola burutuko diren (tutoretza beste ikasle batzuekin, beste ikasgela batzuetako tutorearekin, etab.):

.....

.....

Ordutegi-aldaketak.....

Ikastetxetik kanpo burutzeko jarduerak.....

.....

.....

Beste ohar batzuk:

.....

BALIABIDEAK

Laguntza-mota	Aurreikusitako denbora	Intentsitatea
<ul style="list-style-type: none">• Materialak• Pertsonalak (zehaztu):<ul style="list-style-type: none">- Logopedia- Laguntzailea- Beste batzuk• Curriculumerako sarbidea• Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none">• Ikasturte osoa• Mugikortasun-jardueretan• Beste batzuk	<ul style="list-style-type: none">- Hainbat esparrutan- Laguntza puntualarekin- Etengabeko laguntzarekin

LANEKO PROGRAMAREN JARRAIPENA:

Ebaluazioari buruzko oharrak.....

.....

Lehentasunak	Egokitzapen-trebetasunen arloak*	Urteko edukiak	Ebaluazio-irizpideak	Lorpen-data Bai/Ez/laguntza rekin
1	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Argazki baten bidez eskatzea • Zein jarduera burutu nahi duen adieraztea • etab. 	<ul style="list-style-type: none"> - Jardueraren amaiera eskatzen du "AMAIERA" dion argazkia erakutsiz. - Bi jardueren artean aukeratzeko keinuak erabiltzen ditu - Etab. 	
4	<ul style="list-style-type: none"> • Nork bere burua zaintze 			
6	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko bizitza 			
2	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-trebetasunak 			
3	<ul style="list-style-type: none"> • Komunitatearen erabiler • Etab. 			

BESTE OHAR BATZUK:

.....

.....

.....

IKASLEAREN JARRAIPENA:

Data	Landutako gaiak	Hartutako erabakiak

ESKU HARTU DUTEN PROFESIONALAK:

Data	Landutako gaiak	Hartutako erabakiak

ESKU HARTU DUTEN PROFESIONALAK:

4. ERANSKINA: Ikaskuntza-ingurune baten programazioa: kafetegira joatea

Jardueraren deskribapena

Astero irteera bat egingo da ikastetxetik hurbil dagoen kafetegi batera. Helburua da aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduera bat irakastea, baina batez ere beharrezkoak diren beste trebetasun batzuk modu funtzionalean irakastea: adibidez, komunikazioa, nork bere burua zuzentzea, gizarte-trebetasunak, ezagutza akademiko funtzionalak aplikatzea, etab.

Jardueraren diseinua

Tutorea eta laguntzailea taldearekin joaten dira kafetegira ostegun arratsaldetan, eguneko jardunaren azken orduan. Mahai batean esertzen dira eta zerbitzaria agurtu ondoren Cacaolat bat, Coca-cola bat edo baso bat esne eskatzen dute. Hartutakoa ordaindu eta agur esaten dute.

Giroaren diseinua:

Aldez aurretik, kafetegiko langileei asteko jarduera honen helburua jakinarazi zaie. Tarteka izan ditzaketen portaeretako batzuk azaltzen zaizkie. Erabiliko diren metodoak azaltzen zaizkie: hatzarekin nahi dutena seinalatzea, txartel bat erakustea, hitzez esatea, etab.

Materialak:

Edari eta jakien argazkiak. Edari eta jakien marrazkiak. Jakiak eta edariak dituzten agenda pertsonalak. Kalkulagailua, etab.

Garatu beharreko edukiak:

Egokitzapen-trebetasunak	Ikasteko edukien proposamena
1. Komunikazioa	<ul style="list-style-type: none">• Agurtzea, egun on esatea, etab.• Agurtzen edo hitz egiten dietenean erantzutea• Kafetegiko apaletan coca-cola bat seinalatzea• Liburuan coca-cola baten irudia seinalatzea• Coca-cola eskatzea• Keinuen bidez agur esatea• Hitzez agur esatea• Etab.
2. Nork bere burua zaintzea	<ul style="list-style-type: none">• Edaria bota gabe ateratzea• Bere burua ez zikintzea• Edaria edalontzira kanpora bota gabe ateratzen ikastea• Coca-cola zuzenean latatik edatea• Coca-colaren lata irekitzea• Ezpain-zapia jartzea• Etab.

3. Etxeko bizitza	<ul style="list-style-type: none"> • Coca-colak eta freskagarriak non gordetzen diren jakitea • Coca-colak bere tokian gordetzen eta hortik ateratzen ikastea • Lata irekitzen ikastea • Botila-irekigailua erabiltzea • Cola-caio bat prestatzea • Etab
4. Gizarte-trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> • Modu egokian agurtzea: egun on, arratsalde on, etab. • Eskerrak ematen jakitea • Norbait gonbidatzea zer den bereiztea • Gonbidapen bat egitea • Gehiago ez duela nahi, beteta dagoela esatea • Beren ikaskideari eskatzen irakastea • Etab.
5. Komunitatearen erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • Kafetegian behar bezala sartzea • Mahaiak, aulkiak, ezpain-zapiak, etab. erabiltzea • Kafetegian komunera joaten jakitea • Komuna behar bezala erabiltzea • Telefonoa, ordaintzeko kaxa, etab. beren tokian kokatzea. • Eskolatik kafetegirako bidea jakitea • Etab.
6. Nork bere burua arautzea	<ul style="list-style-type: none"> • Eskerrak noiz eman behar dituen ikasi eta ematea • Bere txanda iritsi arte itxaroten jakitea • Behar bezala portatzen ikastea: ez oldartzea,.... • Hartzen ari direna kentzen badiete kexatzen irakastea • Hartu nahi dutena aukeratzea • Oraindik amaitu ez duela esatea • Etab.
7. Osasuna eta segurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Lata ebakirik egin gabe irekitzen ikastea • Coca-cola astiro edatea • Noiz edan dezaketen eta noiz ez identifikatzea (mina, etab.) • Ontziak birziklatzea • Hotza egon arte itxarotea • Likido izoztuak ez edatea • Etab.
8. Akademiko funtzionalak	<ul style="list-style-type: none"> • Coca-cola ordaintzeko txanponak ezagutzea • Zenbakia kantitate egokiarekin identifikatzea • Coca-colaren marrazkia eta letrak ezagutzea • KAFETEGIA dion errotuloa ezagutzea • Kanbioen zain egotea • Hartutakoaren batuketa egitea • Etab.

<p>9. Aisialdia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jardueraz gozatzen ikastea • Gozatzeko uneak identifikatzea • Kafetegira astean behin, lagun-taldean joatera ohitzea • Aisialdi-jarduerak besteekin egitea • Bidean erakusleihoak, pertsonak, etab. ikusiz gozatzea • Etab.
<p>10. Lana</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Botilak beren edukiaren arabera sailkatzea • Botilak kaxetan hauek osatu arte sartzea • Botila hutsak eta beteak aukeratzea • Ontziak birziklatzea • Tresnak gordetzea • Ontziak garbitzea: katiluak, edalontziak, mahai-tresnak, etab. • Etab.

5. ERANSKINA: Ingurune esanguratsuetan ikaskuntzak programatzeko plantila.

- Programatuko den ingurunea:

- Jardueraren deskribapena

.....
.....
.....
.....

- Jardueraren diseinua

.....
.....

- Giroaren diseinua

.....
.....

- Materialak

.....
.....

Garatu beharreko edukiak:

Egokitzapen-trebetasunak	Ikasteko edukien proposamena
1. Komunikazioa	• • • • • •
2. Nork bere burua zaintzea	• • • • • •

3. Etxeko bizitza	<ul style="list-style-type: none"> • • • • • •
4. Gizarte-trebetasunak	<ul style="list-style-type: none"> • • • • •
5. Komunitatearen erabilera	<ul style="list-style-type: none"> • • • • •
6. Nork bere burua arautzea	<ul style="list-style-type: none"> • • • • •
7. Osasuna eta segurtasuna	<ul style="list-style-type: none"> • • • • •
8. Akademiko funtzionalak	<ul style="list-style-type: none"> • • • • • •
9. Aisialdia	<ul style="list-style-type: none"> • • • • • •

10. Lana

-
-
-
-
-
-